

Goienkaria

2010eko urriaren 1a > Egubakoitza > X. urtea > 436. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

TOKIKOM

"Guk sinisten dugu sar publikoan eta ikastoletan, euskal hezkuntza propioan"

Koldo Tellitu

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko lehendakaria > 08



G2a

Karlistaldiko abestiak joko ditu Tapiak > 31

BERGARA

Astelehenean hasiko dira isunak ipintzen TAO gunean > 16

ARETXABALETA

Kurtzebarri eskola handitzeko arauen aldaketa-prozesua hasita > 23

KIROLA

09:00etan abiatuko da mendiko bizikleta martxa etzi Bergaran > 29

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Diru faltak gerarazi ditu, oraingoz, AHTren lanak

ERAGINA Sustapen Ministerioa egiten dabilen tramuetan obrak geldi daude edo polikiago doaz

UTZITA Bistakoa da langileak joan egin direla Mazmelako eta Maringo lanak bere horretan utzita > 02-03

JENDARTEA > ELIZA

Mesedeetako mojak joan egin dira Eskoriatzatik

Mesedeetako Amaren erresidentzian bizi ziren Karitateko Mesedeetako mojak martitzenean joan ziren herritik. Sor Teresa, Sor Mari Angeles, Sor Pilar eta Sor Arantxa gelditzen ziren, eta euren erlijio-ordenak erabaki du bakoitza beste etxe batera bidaltzea. Mojak penaz joan dira -batez ere, erresidentziako nagusiei ezin izango dietelako lagundu-, baina baita esker onez ere. Eta herritarrek ere esker on hori agertuko diete aurki egingo duten ospakizun baten. > 11

JENDARTEA > OSPAKIZUNA

Dena prest Maritxu Kajoirako

'Jaiak bultzatuz!' lelopean ospatuko dute gaur > 12

JENDARTEA > OSASUNA

Ludopatziaz arituko dira Bergaran

Eguaztenean da hitzordua, 18:30ean, kultura etxean > 04

KUBERS

YOKO OUT

TXUSTERS

ROCK PRIVADO

SCAM

YMOTEK

Danbakako 19 taldeak hautatu dituzte

Epaimahaiak dagoeneko aukeratu ditu Danbaka IV. musika lehiaketan parte hartuko duten 20 taldeetatik 19; azkena, 20.a, ikusleek aukeratu dute, Internet bidez, www.danbaka.com webgunean, eta urriaren 5era arte dute botoa emateko epea. Azkeneko edizioetan bezala, hainbat musika estilotako taldeak aurkeztu dira. Aukeratutako 19 taldeen gaineko informazioa dago barruko orrietan. > 32-33

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 32-34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Zerbitzuak > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

FORD FIESTA
10.950 eurogatik
UTB 0%
36 hilabeteen, 10.000 euro arte. Gainerakoa eskura.

&gehiago, beti gehiago.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g ARRASATE

Feel the difference

izan ala not to be

MONDRAGON LINGUA

www.mondragonlingua.com

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

AHTren lanak geldirik daude zenbait lekutan, diru faltagatik

ALDE EGINDA Madril egiten dabilen tarte batzuetatik joan egin dira enpresak, eta geldialdia nabarmena da Eskoriatzan eta Aramaion

%38 GUTXIAGO Espainiako Gobernuak 135 milioi inbertituko du datorren urtean AHTn, aurtengo baino %38 gutxiago



Maringo tramuko lanetan, Eskoriatzan, ez da inor ikusten orain.

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Abiadura Handiko Trena bi abiadurako bihurtu da: Eusko Jaur-laritzaren ardurapean dagoen tarte abiadura bizian doa, eta hori ikusten da Bergaran eta Antzuolan; bi herriok lotzen dituen tramuaren lanak ekainean hasi ziren eta martxa onean doaz aurrera, bai Bergaran, Kukubason, bai Antzuolan, Goizper atzean. Eusko Jaur-laritzaren dako "erabateko lehentasuna" da AHT, Lopez lehendakariak berak esanda; eta joan den astean, beste bi tarte lizitatzera ateratu zituen: Antzuola eta Ezkio-Itsaso II Ekialdea, bata, 133 milioi euroko lizitazio aurrekontuarekin eta 63 hilabeteko exekuzio-epearekin; eta Bergara-Bergara, bestea, 100 milioioko lizitazio aurrekontuarekin eta 63 hilabeteko exekuzio-epearekin. Eta Eusko Trenbide Sareak jakinarazi duenez, hemendik urte bukaerara arte Tolosa-Hernialde, Andoain-Urnieta, Antzuola-Ezkio-Itsaso Mendebalde eta Urnieta-Hernani tramuak adjudikatzea eta horietan lanak hastea da asmoa.

Hori, Eusko Jaur-laritzak kupo bidez egiten dabilen tramuei dagokienez; Gipuzkoako zati handiena, hain zuzen.

DATUA

233

MILIOI EURO

Joan den martitzenean Eusko Jaur-laritzak 233 milioitan ateratu zituen lizitazioa beste bi tarte: Antzuola-Ezkio-Itsaso II Ekialdea (133 milioi) eta Bergara-Bergara (100 milioi).

Baina martxa geldoaren adibideak ere baditugu, Espainiako Sustapen Ministerioak Adif bere enpresa publikoaren bitartez egiten diharduen tarteetan; hau da, Arrasate, Eskoriatza eta Aramaio ukitzen dituzten tarteetan.

DIRUA AURRERATZEN DUTE

Eskoriatzan, lanak ia guztiz geldirik daude; Marin elizateko tunel luzean lehen 24 orduz lan egiten zuten, orain egunez txanda baten besterik ez. Eskoriatzako tartean lehen txandatan zebiltzan 200etik gora langiletik zortzi langilera bakarrik pasatu dira. Marinen eraiki dituzten zutabe erraldoiek, AP-1eko egiturak txiki uzten dituz-

tenak, isolamendu eta bakardade itxura ematen dute. Inguratzen eta babesten zituzten aldamioak eta plataformak kendu egin dituzte. "Orain paseatu eta guzti egin daiteke; lehen ezinezkoa zen, kamioiak gora eta behera zebiltzalako egun osoan", esaten du Mazmelako auzo-alkate eta lurjabeak batzen dituen Onbide elkarteko Juan Carlos Belokik.

Diru falta da egoera horren zergatia, eta hala onartu zuen Espainiako Gobernuak ordezkari Mikel Cabiecesek 2011ko aurrekontuen berri eman zuenean, atzo, eguna: Espainiako Gobernuak 135 milioi inbertituko du *euskal* Y-an, aurtengo baino %38 gutxiago. Baina ez du modu ofizialean konfirmatu lanak geldirik daudela, eta esan du Adifek ez duela "aldatu enpresekiko dituen kontratuak, eta esandako epeak bete egin beharko dira". Bestalde, Lopez lehendakariak esan du gobernu zentralari eskatu diotela bere tramuetan "murrizketarik ez egiteko".

Herritarrek hauxe diote: "Urte hasieran igarri genuen martxa txikiagoan zebiltzala, eta konfirmatu egin da; enpresak eta langileak beste obra batzuetara joan dira; bat Zamorara joan zen joan



"Urtea bukatzerako, 1.200 milioi eurotik gorako lanak lizitatuko ditugu"

Patxi Lopez > Lehendakaria



"Adifek ez du aldatu enpresekiko dituen kontratuak, eta epeak bete egin beharko dira"

Mikel Cabieces > Espainiako Gobernuak ordezkaria

den astean. Diru gehiagorik ez dagoela esan ziguten", esaten du Belokik. Obrak finantzatzeko, enpresek ordaintzen dituzte lanak, zatika, eta Adifek lan jakin bat bukatuta dagoela zertifikatu behar du, Sustapen Ministerioak enpresa horiei ordain diezaien; eta horrek egin du huts, hain zuzen, Adifek obrak zertifikatzeari utzi egin diola: "Enpresa eraikitzaile-etako ordezkari batek esan zigun egindako obren %20 bakarrik zertifikatzen zizkiela orain Adifek".

Marinen da bereziki nabarmen lanak geldirik daudela. Izan ere, AHTren lanen nukleo garrantzitsu bat da elizate hori: hara ailegatzeko da Albertiako tunela (4,8 km), bi ahokoa, Legutio-Eskoriatza tartean; eta Maringo biaduktua (482 m), auzoko GI-3343 errepide gainetik pasatzen dena ere hantxe egingo dute. 17 eta 60 metro arteko zortzi zutabek eutsiko dute zubia.

Bada, denbora batean, behintzat, zubi horren eskeletoa bakarrik ikusi ahal izango da: "Sustapenekoek eurek ere ez dakite zenbat denbora emango duten geldi: urtebete, bi urte... Nik esango nuke bi urtean, gutxienez, egongo direla geldi", da Juan Carlos Belokiren kalkulua. Horren-

GAESeko entzumen aparailu guztietan

% 10eko DESKONTUA

+ Ordainketa 10 hilabetetan*

*Eskatzen duen %10 ordaindu behar da esku-dutun eta gainerako 9 epeak entitate finantzario baten adostasunaren arabera.

- Kanpainaren iraupena: izakinek agortu arte.

DESKONTU BEREZIAK

Ot. Lizentziatua, 18 • Tel.: 943 71 27 93 • **ARRASATE**

| Zurradero, 10 • Tel.: 943 76 94 55 • **BERGARA**



ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA



"Egiten dituzten lanen %20 bakarrik zertifikatzen dabil Adif, eta enpresek ezin dute kobratu"

"Induspeko tunela inauguratu arren, oraindik lan handia geratzen da; urtebetetik gora bai"

Juan Carlos Beloki > Lurjabea

bestez, zaila izango da AHT 2016. urterako bukatuta egotea.

INDUSPE, AMAITZEKE

Mazmelan ere giro lasaia antzematen da, nahiz eta AHT oso aurreratuta egon. Han dago Induspeko tunela (2.224 m), irailan inauguratu zutena. Baina horrek ez du esan nahi tunela bukatuta dagoenik: "Irailan, tunelaren goiko aldea zulatzen bukatu zuten. Falta da beheko aldea; hiru metroko altuera kendu behar dute, drainatzeak egin, estaldurak, hormigonatzea...", esaten du obra horien atari-atarian bizi den Juan Carlos Belokik. Tunel hori 2.000 metro inguru

ru luze da. "Luzerako lana da, urtebetetik gora", esaten digu.

Baina han langilerik ez da ikusten, eta makinak ere geldi daude, edo beste obra batzuk egitera joan dira enpresak. Topografoen bat, zaintzaileren bat... horiek bakarrik gelditzen dira.

Mazmelako auzoan zuten hormigoiko planta nagusia guztiz gelditu zuten irailaren 27an, eta han daude geldirik hormigoia banatzeko erabiltzen zituzten bost kamioiak, txoferrik gabe. Lanak berriz hasten direnean, ezin izango dira obrak utzi ziren puntutik jarraitu; orain kentzen ibili diren egitura guztiak berriz muntatu beharko dituzte, adibidez.

ERREPIDEA EGITEN, BATIK BAT

Eskoriatza-Aramaio eta Aramaio-Arrasate tartetean ere lanak motelago doaz. Aramaio-ren kasua berezia da, han AHTren lanek zartatutako lurretan luizia gertatu zelako urtaril bukaeran, orduko eurite gogorren ondorioz. Errepide nagusia itxita geratu zen, eta Adif hori konpontzen dabil. Edozelan ere, Asier Agirre alkatearen hitzetan, "maiatza ezkerro, AHTren lanetan mugimendu txikiagoa ikusten da". Esaten duenez, batez ere, tunelean -Induspekoa- gelditzen dira langile batzuk. Gaineratzen duenez, hala ere, Udalarik ez diote "ezer ere" esan bide ofizialeatik.

Hala ere, Aramaio-ko lanak ere nahiko aurreratuta daude: hala gertatzen da biaduktuaren obrekin -A-2620 errepidearen gainetik doana-. Eta badaude oraingoz egin ez daitezkeen lan batzuk ere: esate baterako, tunelaren trenbideak ez dituzte oraindik ipiniko. Komentario ofizialen faltan, usteak dira nagusi: "Entzun dugu tunela itxi egingo dutela, beste tramu batzuetako lanak egin ahal izateko", esaten du lurjabe batek.

Arrasaten ere gauza bera gertatzen da: Udalatx barrenetik pasatuko den tunela (3.160 m) zulatzen azaroan hasi ziren eta inguruko bizilagunek diote "polikiago" dabiltzala, egunez bakarrik eta domeketan atsedean hartuta. Hala ere, Etxebarriko tunela (312 m) egiten urtarilean hasiko direla esan dute langileek.

"BUKA DITZATELA LANAK"

Eta, oraingoz, euren lurretan eta etxe inguruetan giro lasaia duten arren, ez da gustuko egoera, Onbideko Juan Carlos Belokik dioen moduan: "Guk nahi duguna da lanekin aurrera jarrai dezatela eta lehenbailehen buka dezatela trena, inguruak ahalik eta ondoen utz ditzaten berriz".

izan ala not to be triLINGUA

ez izan zalantzarik
eta zatoz triLINGUA komunitatera
Zatoz MONDRAGON LINGUAra!

Ingelesa,
euskara, alemana,
italiera, txinera,
frantsesa... ikasi,
metodo moderno eta eraginkorrenaren bidez

Adin guztietarako

Maila guztietarako

- Ikaskuntza-metodo eraginkorrena da, banan-banako tutoretzak, zuzeneko eta/edo Skype (Internet) bidezko klaseak eta tresna informatiko modernoak bateratzen dituelako.

- Hizkuntza lantzeko jarduerak: antzezlan didaktikoak, lehiaketak, Interneteko ikasgaitxoak, irakasledun bisitaldi gidatuak.

- Cambridgeko azterketak gure zentroan bertan egiteko aukera.
Emitza bermatuak.

%80ek
gainditzen dituzte Cambridgeko azterketak



Adin guztietarako

Maila guztietarako



Gure zentroetara
hurbildu

www.mondragonlingua.com

ARRASATE
Araba etorbidea 4
943 71 20 55

OÑATI
Montxon kalea
943 71 20 55



Orain, **hurbilago gaituzu**
Oñatiko erdialdean

Urriaren 20a baino lehen
egin matrikula eta
Appleren **iPad**
bat lor dezakezu.



Antzuolan, AHTko lanak.

L.K

Jo eta su dabilta Bergaran eta Antzuolan

Eusko Jaurilaritzaren tramuetako obrak martxa onean doaz, eta bistan da haien eragina Bergaran, Kukubason, eta Antzuolan, Antiguan (Goizpertik gora, argazkian). Uztailean hasi ziren lanak Bergaran, eta han jo eta su dabilta. Angiozarren, oraingoz, obra nagusiak prestatzen dabilta: zabortegiak egiten, erreka desbideratzen... Orain arte, Adifek kontrolatutako obrek eraman dute aurrea, baina badirudi bi zatiak parekatuago geratuko direla laster. Angiozarren, bestalde, zundaketak egiten dabilta, baina hantxe ere atzerapenarekin doaz.

JENDARTEA > OSASUNA

Ludopatendako auto-laguntza taldea osatu nahi dute bailaran

Gaixotasuna ezagutarazteko eta aurre egin ahal izateko tratamenduen berri emateko, hitzaldia dago eguaztenean Bergarako kultura etxean

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bergarako Drogen Menpetasunen Prebentziorako Udal Zerbitzuak ludopatiaren inguruko hitzaldi bat antolatu du datorren asterako, *Joko patologikoa, beste mendekotasun bat* lelopean. Hitzaldia eguaztenean, hilak 6, izango da, 18:30ean, kultura etxean. Ekintza Dasalud elkarteak psikologo Beatriz Alonsok eta Hernaniko Jokalari Anonimoen auto-laguntza taldeko koordinatzaile Agustinek eta talde bereko beste kide batek eskainiko dute.

Hitzaldian, ludopatia zer den azalduko dute eta tratamendurako hainbat aukeraren berri emango dute. Bestalde, jokoarekin arazoak izan dituen pertsona baten esperientzia entzuteko aukera ere izango dute kultura etxera joan direnek.

Bergarako Drogen Menpekotasunen Prebentziorako teknikari Agurtzane Loidik azaldu du

hitzaldiaren helburu nagusia dela herritarren artean ludopatia zer den ezagutaraztea eta, tratamenduei dagokionez, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen eskaintza azaltzea.

HERRITAR BATEN ESKAERA

Hitzaldi horrekin, jokoarekin arazoak izan dituen Jose Antonio herritarren eskaerari erantzun nahi diote. Bergararrak herrian ludopatiaren inguruko auto-laguntza talde bat sortzeko proposamena egin zuen eta udal zerbitzuak horretan laguntzea erabaki du. Loidik jakinarazi duenez, talde hori ez litzateke Bergarara bakarrik mugatuko; zabalik egongo litzateke eskualde osoan jokoarekin arazoak dituztenendako. Udal teknikariaren arabera: "Horregatik, egokia iruditu zaigu lehendabizi hitzaldiaren bitartez ludopatia ezagutze-
ra ematea, eta bertan, horrelako



Lagun bat, jokatzen.

GOIENKARIA

DATUA

8

GAIXO

Hernaniko Jokalari Anonimoen auto-laguntza taldetik 25 lagun inguru pasa dira azken bi urteotan. Horietatik, zortzi gaixok baino ez dute ohitura terapietara joateko.

egoeran egon daitezkeen guztiei gune bat eskaintzea, eta egoki ikusiz gero, Debagoiengan auto-laguntza talde bat osatzeko beharrak aztertzeke eta bultzatzeko".

KASU ASKO

Bergarako Udalean proposamena egin duen Jose Antoniok azaldu digu berak arazoak izan dituela jokoarekin eta bi urte pasatxo daramatzala Hernanira joaten, Jokalari Anonimoen auto-laguntza taldeak egiten dituen terapietara. Haren arabera, "ezkutatu egin daitekeen gaixotasuna da jokoarena, eta askotan etxetik irteten ez den arazoa da. Baina kasu asko daude, baita Debagoiengan ere. Adituek diote herritarren %4-5ek dutela arazo hori. Lagundu egin didate eta nik ere lagundu egin nahiko nuke".

Terapia horietan bakoitzak bere esperientzia kontatzen du, bai jokoan sartu aurretik eta baita ondoren ere; horrez gainera, hainbat gomendio ematen dizkiete, jokoan ostera jausi ez daitezen. Bada, bergararrak terapietara joateko garrantzia azpimarratu nahi izan du.

> TEKNOLOGIA

Ikerlanek hitzarmena sinatu du Vienako Unibertsitatearekin

Sistema txertatuetan Ikerlan-IK4k Europan duen kokapen estrategikoak indartzen dihardu, Vienako Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenari esker. Sistema mota horietan erreferentetzat hartzen da unibertsitatea. Horren bidez, herritarren egunerokotasunean erabiltzen diren produktu berritzaileen garapena bultzatzea, ikertzaileen elkartrukatzea eta alor horretan sakontzea ahalbideratzen duten tesiak bultzatu nahi dituzte.

> POLITIKA

Elkarretaratzeak eta manifestazioa, Udalbitzaren alde

Udabiltzaren epaiketaren harira hainbat ekimen antolatu dituzte egunotan. Gaur, 13:00etan, elkarretaratzea egingo dute Arrasateko Herriko plazan. Bihar, hitzordu bikoitza dago. 12:00etan, elkarretaratzea egingo dute Bergarako plazan, eta egun berean Bilbon egingo den manifestazio nazionalerako deia zabaldu dute. Hara joateko antolatu duten autobuserako izena eman daiteke Bergarako Arranon.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartera esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



ESK-k deituta eguaztenean Seber Altuben egindako elkarretaratzea.

A.E.

GREBA OROKORRA > ERANTZUNA

Lan erreformaren aurkako grebak eragin txikia izan du

Debagoienean lantegi gutxi batzuetan egin zuten bat eguazteneko grebarekin

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

UGT eta CCOO sindikatuak emandako datuen arabera, erantzun txikia izan zuen gurean eguaztenean egindako greba deialdiak. Lantegi gutxi batzuetan egin zuten bat grebarekin.

UGT sindikatuko metaleko arduradun Emilio Rodriguezek adierazi digunez, Arrasaten, Gelman eta lehengo Gamein, langileen erdiek egin zuten greba. Polmetasan, berriz, lanuztea %60koa izan zen, UGTko ordezkariaren

arabera. Era berean, eragina izan zuen beste hainbat enpresatan: Arcelorren, Zumarragan, langileen erdiek egin zuten greba.

CCOOk Julian Feo delegatuak azpimarratu duenez, Eskoriatzako Ezkurra eta Alza enpresak greba egin zuten. Bergaran, Jean y Chamont enpresa erabat geratu zen eta bertako Torunsa eta Lacor lantegietan hainbat langile atera ziren kalera. Gauza bera gertatu zen Arrasateko Feliciano Aranzabal lantegian.

JAURLARITZA ETA PATRONALA

Jaurlaritzak emandako datuen arabera, osasun eta hezkuntzan grebak ez zuen ia eraginik izan, eta industrian jarraipena %10ean kokatu zen. Adegipuzkoako sindikatutik emandako kopuruen arabera, enpresetan ez zuen eraginik izan: jarraipena %1ekoa izan zela zehaztu dute.

Debagoieneko Ospitalean ere normaltasuna izan zen nagusi eguazteneko greba deialdian.

ELKARRETARATZEA ARRASATEN

ESK-k deituta elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Arrasateko Seber Altube plazan. *Erreformatik pikutara* zioen pankartaren atzealdean 25 bat lagun batu ziren Espainiako Gobernuak onartutako lan erreformen aurrean protesta egiteko.

ESK-k greba deitu zuen Zapteroren gobernuaren erreformen aurka, eta gobernuak eta ugazabek CCOO eta UGTekin suspertzen duten elkarriketa sozialaren aurka.

TEKNOLOGIA BERRIAK > MONDRAGON TALDEA

Internet bidezko Mutelebista sortu dute Mondragon Unibertsitatean

Asteroko erreportajeak, zuzeneko emanaldiak eta bideo gordailua ditu komunikabide berriak

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Mondragon Unibertsitateak Internet bidezko telebista sortu du: MUtelebista, hain justu ere. Mondragon taldeko lehen telebista korporatiboak hiru atal izango ditu: asteroko erreportajeak, zuzeneko emanaldiak *streaming* bidez eta bideo gordailua. Telebista berria ikusi gura duenak www.mondragon.edu/mutb webgunera sartu behar du.

Eguaztenero, eguerdietan, hiru minutuko iraupena izango duten albistegiak pantailaratuko ditu, hainbatetan erreportaje bakarrekook eta beste batzuetan hainbat gai jorratua. Bestalde, Komunikaldiak, Literatura Astea eta halako ekitaldi aipagarriak gertatzen direnean *streaming*-a erabiliko du horiek zuzenean transmititzeko. Azken horren harira, dagoeneko proba egin dute; hain justu, irailaren 6an modu horretan eman zen unibertsitatearen ikasturte hasiera ofiziala. Azke-

nik, bideo gordailuan, unibertsitateko ikasleek zein irakasleek egindako ikus-entzunezko lanak egongo dira ikusgai.

EUSKARA NAGUSI

Hizkuntza ofiziala euskara izan arren, eduki guztiak azpidatzi-ta joango dira, gaztelaniaz eta ingelesez. Dena dela, norbaitek gaztelaniaz berba egiten badu, azpidatziak euskaraz eta ingelesez agertuko dira, hizlariaren ahotsa bikoiztu barik. Eta ingelesez hitz egiten duenarekin, berdin; euskaraz eta gaztelaniaz azalduko dira azpidatziak.

Ikus-entzunezko Komunikazioan arduratuko dira MUtelebista egiteaz, Idoia Astigarra-ga irakasleak koordinatuta. Idurre Lazkanok ardura teknikoa izango du eta zeregin horretan Itziar Irizar ikaslearen laguntza izango du. Azken horrek aurkeztuko ditu albistegiak. Haien atzean erredakzio batzordea ibiliko da, hiru fakultateetako ordezkariekin.



Itziar Irizarrek aurkeztuko ditu albistegiak.

MU

Lourdes Idoiaga > Oñatiko alkatea

"EAJk aurkeztutako proposamenak alderdi politiko guztien adostasuna bilatzen du"

J.IRIONDO / A.EZKIBEL > OÑATI

Domekan, Alderdi Egunean, Eusko Alderdi Jeltzaleak *Ados* izeneko proposamena jarri zuen mahai gainean, besteak beste, bakerako eta normalizazio politikorako printzipioak jasotzen dituen. Lourdes Idoiak azaldu du proposamena.

Alderdi Jeltzaleak *Ados* proposamena aurkeztu zuen domekako Alderdi Egunean. Zer da proposamen hori?

Aurretik datorren ekimen bat da, otsailean aurkeztu zen bere osotasunean. Proposamenak gura duena da alderdi politiko guztien adostasuna, eta ez alderdi bakarrarena; noski, alderdi abertzaleekin. Gura dena da hortik abiatuta lortzea bakerako bidea eta normalizaziorako bidea.

Hortaz, hori da EAJk eskaini zuena. Zapatuan, Gernikan ez zen EAJ egon, gonbidatuta ez zegoelako, baina uste dut prozesu luzea izango dela eta momen-



Lourdes Idoiaga.

tu batean edo bestean guztien beharra egongo dela, eta hortik joango garela.

Badirudi alderdi guztiek gura dutela prozesua bideratu. Baina argi dago, azkenean, adostasun batera iritsi beharko dutela prozesu honetan.

Bai, oso garbi dago. Mementu honetan, adibidez, ezker abertzaleak bere protagonismoa gura du orain erabaki duelako bere estrategia aldatzea. Baina pape-retik eta deklarazioetatik egunerokotasunera pasatzeko momentuan, hitzetatik ekintzetara pasatzeko momentuan, ni seguru nago herri baten askatasuna ez dela etorriko baten protagonismotik edo beste baten protagonismotik. Bide luze eta mal-kartsua izango da, baina seguru etorriko dela denok lan eginda. Frentismoak aurrera beharrean atzera eramaten gaitu.

Otsaila ezker lantzen zabilzaten proposamena nola azaldu diezue gainerako alderdiei?

Gure proposamena adostasunarena eta aniztasunarena da. Hortik abiatuta denon arteko lana izan behar du, eta ez alde bakarrekoo ideologia hartuta; baikizik eta orokortasunean.

EKONOMIA > INDUSTRIA

Mondragonek 500 lanpostu sortu gura ditu Txinan

Taldeak 200.000 metro koadro gehiago izango ditu Txinan, enpresa berriak hartzeko

A.E. > BERGARA

Martitzenean sinatu zuten akordioa Eusko Jaurlaritzak eta Kunshan eta Qiandeng probintzietako gobernuak. Hitzarmen horri esker, Mondragon Taldeak 200.000 metro koadro handitu ahal izango du probintzia horietan duen parke enpresariala, enpresa berriak kokatzeko.

Mondragon Taldeak 500 lanpostu gehiago sortu nahi ditu Kunshanen, eta, hala, 2.500era

igo gaur egun duen pertsonala. Horretarako, 32 milioi eurotik gorako inbertsioa egin beharko du.

LOPEZ LEHENDAKARIA, POZIK

Lehendakariak hitzarmenaren garrantzia azpimarratu eta hau-xe esan du: "Mondragon Talde-arekin Euskadirentzat erreferentzia estatuta lortzeko aurrera egin dugu". Lehendakariak Fagor, Orbea, Orkli eta Batz enpresak bisitatu zituen.



zabalik

Juan Martin Elexpuru

Roz

Roslyn M. Frank izenez, Roz lagunendako. Geure artean izan dugu Iowako Unibertsitateko hizkuntzalaria eta etnologian aditua. Munich-etik bueltan zetorren kongresu batetik, eta hemengo lagun zaharrak eta berriak bisitatzen ibili da hara eta hona.

Berarekin egoteko aukera izan dugunok txundituta geratu gara bere euskara txukun eta landuarekin eta jakinduria zabalarekin. Aspaldi ikasi zuen euskaraz, pare bat barnetegi egin, Euskadi Irratia entzun, eta batez be ingelesa ikasi nahi zuten euskaldun zaharrak bere Iowako etxean hartuta.

Eusko Ikaskuntzako kidea, bere curriculuma eta argitalpen zerrenda ez dira nolanahikoak, sarobeak, euskal serorak, hartza-ren sinbologia (Hamalau eta abar) aztertu ditu, besteak beste, baina euskal hizkuntza da bere fokoa. Hizkuntzalaritzan euskaraz jakin barik ezin dela pausorik emon dino zeharo konbentzituta, eta ezin ditu ulertu hainbat euskal hizkuntzalariren konplexuak. Iruña-Veleiako auzia ere gertu-gertutik jarraitzen du, txosten bat ere idatzi du, eta grafitoak benetakoak izan daitezkelakoan dago, ulertu ezinik zela ez diren egin laborategiko analisiak.

Laster *Berria*-n eta GOIENKARIAn agertuko dira berari egin-dako alkarrizketak eta ez naiz luzatuko, baina ezin geratu berri-keta luzeen ondoren geratu zaidan pare bat kezka aitatu barik. Bata, globala, Estatu Batuen faszistizazioa, fundamentalismo erlijiosoaren igoera ia geldiezina, dagoeneko botere ekonomiko-aren jabe dena eta laster politikoa ere beregana dezakeena. Bes-tea, etxekoa, euskaldunon autoestima falta.

Eta zein hotz hartzen ditugun gutaz hainbeste dakiten eta seku-lako laguntza eman diezaguketan Roz bezalakoak, batez ere ofi-zialismoarekin kritikoak badira..

usteak uste

Mirian Biteri

Pasaportea berritzeko komediak

Pasaportea berritu behar izan dut asteen. Eskerrak datozen 10 urteetan horrelakorik ostera ere egin behar ez dudanik. Aurretiko zita hartzeko hiru modu daude: 06:00etan etxetik gertuen dagoen komisariara joatea eta txanda itxarotea; edo telefono edo Internet bidez egitea. Azken horretatik egiten saiatu nintzen lehenengo eta ez nuen lortu. Telefonotik ere ez nuen zorte handirik izan eta makina batekin hiru bider hitz egin ostean berdin geratu nintzen. Bada, ez da samurragoa pertsona batekin zuzenean berba egitea? Makina inpertsonalek hartu gaituzte.

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

Kapitain pilotu

Luis Aranberri 'Amatiño'

<http://eibar.org/blogak/amatino/>

Gaur hutsaren hurrengo falta izan zait azafatari deitu eta botazeko: "Aizu, esaiozu hor aurreko kabinan agintean dagoen kapitan pilotu harroputz horri, kaiku hutsa dela". Baina zahartzen ari naiz. Nere bilobengan pentsatzen hasi eta... aittitta, honezkero hobe duzu istilutan ez sartzea. Baina gero, Loiura heldu bezain laster, damutu egin naiz.

Gaur, ordua baino zenbait minutu beranduago atera da hegaldia Barajasko aireportu-tik. Ez dut uste hegazkin barruan eserita geunden bidaietarik inor ohi baino urduriago zegoenik, baina kapitainak berandutzearen arrazoa azaldu beharrean sumatu du bere burua eta, profesional hotzaren ironia finaz, esan digu:

"Ya no sólo no funcionan los controladores, sino que tampoco funciona el personal de tierra. Estamos en disposición de salir, pero falta que nos

retiren el finger. En estos momentos estamos a la espera de que encuentren a un funcionario para que nos quite la escalera".

Beraz, ea ondo ulertu dudán:

1. Gauza jakina denez, kontrolatzaileek ez dute euren lana behar moduan egiten.
2. Kontrolatzaileena gutxi balitzan, orain aireportuko langileek ere ez dute euren lana betetzen.
3. Pilotuon esku balego, orduan besterik litzateke, baina eskailera kentzeko ere gauza ez den jende xume eta ganorabako horri esker, Iberia enpresa superronaren hegazkin eder honek ez du orduan ateratzerik.
4. Esan beharrik ere ez, jakina, eskailera kendu behar duen gizagaixoa funtzionarioa besterik ez dela. Horretarako edonork balio du. Baina auskalo non ote dagoen.
5. Hala ere, ez gero kezka-tu, esku onetan zaudete. Gu ez gara ez kontrolatzaile petra-lak, ez aireportuko langile eskasak, ez funtzionario alferrak. Gu pilotuak gara eta hemen gaude, beti prest!

koplak

Xabier Igoa

Maritxu Kajoi 2010

Nora goazen galdetuz gero hala erantzun begira: urriak bata heldu da eta Maritxukin iturrira!

Eskapulaixo, korbata, takoi ta ezpain gorri artean, jende gehiegi ez da gelditzen egun honetan etxean!

Bizkaia aldean Migeltxu Kajoi ospatu gura dute fin, hor ez al doaz urte guztia jantzita korbatarekin?

Akordatzen naiz Bartolo eta Maritxun iturriakin, aurtan be asko egongo dira, nahiz kañera formarekin!

Kuadrillakoen bazkaria ta kanpoko jende ugari, urtero gisa denok Maritxu agurtu nahiez kantari!

Zabaldurte osoa itxita eduki izan den kaxa, guap@ jantzirik agertu bertan ta guztiok ondo pasa!

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak, Goienkaza eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziortza Martín, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria



LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Poz-pozik gaude

Lourdes Etxeberria, Arantza Eriz eta Imanol Aginagalde
(Kurtzebarri eskolako ikasle, irakasle eta gurasoen izenean)
Arexabaleta

Ohiturari jarraituz, aurteneren, San Migeletako ferixa ekologikoan Kurtzebarri eskolako ikasle eta irakasleak bertan izan gara. Guraso eta herritarren aldetik jaso dugun erantzuna ezin hobea izan da eta horregatik eskerrak eman nahi dizkizuegu gure postura hurbildu zineten guztiei, gure ikasleen ilusioari eta ekimen horretan aurrera egiteko gogoari eusten lagundu diguzuelako. Prest gaude dagoeneko hasi eta landare berriak ereiten hasteko; izan ere, ongarririk inportante eta naturalena gurekin dugu: ondo egindako lanak ematen duen poztasuna!

Itsumena

Joxerra Agirreurreta
Leintz Gatzaga

Gezur handi batean aterpea harturik bizi gara: benetan gertatzen ari denari bizkarra ematen diogu, begiak lausotu zaizkigu, belarriak entzungor ditugu. Laurogeita hamarrek hamarkada hasieran izango zen; Ordiziako periko gazta-txapelketaren irabazlea ez zen artzain bat izan: benetako artzain bati erosita-ko gazta bat aurkeztu zuen iruzurgile batek. Urte berean, hogeiei eguneko tartean, *Samielak* Oñatin: betiko artzain-txakurren txapelduna Eibarko garaje baten bizi eizen, delako *Xoli* txakurra; alegia, zirko baten erakutsita egon zitekeen txakurra Oñatin txapeldun. Bi gertakari buruz ez zen askotzarik entzun, ezikusiarrena egin genuen, guri ez zitzaigula

horrelakorik gertatuko pentsatu genuen. Ordiziako gertakariari nola-halako konponketa eman omen zioten, baina Oñatikoari? Kasu larregirik egin gabe, gauez pasatu zen. Aurteneren, zenbat ote ziren Oñatiko ardi-txakur txapelketan aurkeztu zirenen artean benetako artzainak? Gure ingurumarian artzainik ia ez da geratzen: Kargalekun bi pastore daude, Degurixan bakarra, Alabittan inor ere ez. Benetakoa eta bertakoa ez dira baloratzen, hori da errealitate gordina, Oñatin eta Ordizian gertatutakoak, itsuskeriak, itxurakeriak dira. Nahiko genuke arkume on bat jan, ardi-esnea edan, buzkantzak *Samieletan* dastatu, baina hipermerkaturuetan erosten ditugu eta horrela gure artzainek jai dute. Euskara arloan ere beste horrenbeste pasetan da: itsutasuna da nagusi eta ikusi nahi ez dutenen multzoa gero eta handiagoa da. Baikortasuna da nagusi, euskararen geroa ziurtaturik omen dago-eta. Arrasaten, euskararen erabilera neurgailua loka dabil aspaldion, beti omen dago gorantzako bidean; herri-komunikabideen aitzindaritasuna iparhegoetara zabaldua dugu; euskara omen da gazteen eskolaratze hizkuntza; gure kaleetako eskaparate eta karteldegia guztiak euskaraz omen daude. Barka nazazue baina ez, gauzak ez dira hain borobilak: irratia pizten dudanean, kosta egiten zait euskarazko irrati katearen bat aurkitzen; TBa ixoketarakoan, hirurogeita hamar kateko eskaintza sailean, zail egiten zait GOITB eta ETB aurkitzea; egunkariaren bila noanean, euskaraz bat eta bakarra daukat; elektratresna bat erosten dudanean, azalpen orrialde guztiak erdaraz daude; udaletxeko oposaketa gehienak gazteleraz egiten dira eta nire medikuak

oraindik ez du *egun on* esaten ikasi. Euskaltegiok matrikulazio kanpainan gaude. Oso motel, ahul, indarge gabiltzala iruditzen zait niri. Bi euskaltegion artean, zenbat ikasle izango da bada? Hirurehun bat lagun? Galde ezazue inguruko hizkuntza-akademietan zein den ingelesko, frantseseko eta alemanerako ikasleen kopurua. Guk ditugun kopuruetatik oso urrin dabilta. Euskara da hemengo helduek hobesten duten hizkuntza? Ez horratio! Eta, bukatzeko, erdaldu-nek euskaraz ikasteko jasaten duten presioari buruz berba egin gureko nuke. Presioa egon badago, eta batzuek jasaten dute: atzerri-tarrek eta euren umeek batik bat. Atzerritarrek udal-laguntzak jasotzeko euskaltegiratzen dituzte. Umeek, hauek bai, ahalegin handiak egiten dituzte, gurean eta eskoletan, gure hizkuntzaren jabe egin daitezen. Punto, hortik aurrera esaten den guztia ipuin eder bat da. Zenbat bertako gizon eta emakume dago –euskararen alde daudenak noski– pauso erdirik eman gabe euskara ikasteko? Bejondeiela nire ikasleak izan diren Najib, Naima, Kontxi, eta Marisa guztiei, eta madarikaziorik handienak ezer egin ez eta gazteleraz berba egiten jartzen gaituzten guztioi.

Gernika: oraingoan bai

Oxel Erostarbe
(Elgetako alkatea)
Elgeta

Euskal Herrian errotzen ari den bake itxaropenaren aurrean, Lopez eta Sanz jaunek irabazle eta galtzaileak dauden eskeman jarraitzen dute, bake eta normalizazio bidean lidergoa hartu gabe, ezetz eta ezetz. Gerni-

kan Batasunak, Aralarrek, Eusko Alkartasunak eta Abertzaleen Batasunak, eta hainbat eragile sozial eta sindikalek, baietz esan genuen, konpromisoak hartzeko sasoia dela. Estatuari eskubide zibil eta politikokoak berrezarri eta preso politikoei dagozkien eskubi-deak errespetatzeko eskatu diogu. ETari jarduera armatua behin betiko uzteko bidean, atzera bueltarik ez duten pasuak emateko. Azken finean, besteak egiten duenari begira egon barik, aldebakarreko pausuak emateko eskatu diegu Estatuari eta ETari. Urteak joan eta urteak etorri, gero eta gehiago gara ezkerrekoak eta abertzaleak izanda bake bidean argi hitz egiteko pausua eman dugunak. Berria da Batasunak ETari aldebakarrekoa, iraunkorra eta egiaztatzeko modukoa den su etena eskatzea. Horregatik, duen balioa eman behar diogu agiriari. Azken hori berria da eta niri behintzat aurrerapauso handia iruditzen zait. ETAk, Estatuak eta ezezko jarretetan daudenek entzungor jarraitzen duten bitartean, Gernikako sinatzaileok heldu egin behar diegu hartutako konpromisoei. Hitzak ekintza bilakatu behar ditugu. Antzinako jarrerak alde batera laga eta Euskal Herriak merezi duen bakeari behar den erantzuna eman.

Aupa! Ni Mujika goxotegikoa naiz eta gutun honen helburua urte hauetan goxotegira jaixetan txixa egitera etortzen zaretenoi zuzentzea da, badira urteak eta... Jaiak diren bakoitzean 3 edo 4 txixakada botatzen dizkidate portal barruan

Artekaletako txixaneruei

Xabier Mujika
Bergara

egunero. Eta aurteneren demasa izan da San Martin jaietan; izan ere, asteazken eta larunbatean atera behar izan dugu txixa eskobarekin, ze ezinezkoa zen-eta fregonarekin garbitzea; horrez gainera, oparitu dizkidate klinex batzuk ipurdia garbitu ondoren. Udaletxe ondoan, hain zuzen ere herriko plazan, bi komun mobil horretarikoak zeuden, baina nola joango zarete Artekaletik plazaraino txixa egitera, ezta? Haraino, buf! Errege bezperan lau neska topatu nituen ilaran txixa egiten, orduan ere komunak bazeuden kaletik zehar, baina... Lanean hasi baino lehen hasi behar dut garbitzen portala, inor jausi ez dadin, kalera irteten naiz eta Artekaletako portalak txixaz beteta daude, ondoko altzari dendako kristala txixaz beteta, kristala e! Pizzeria izandakoa txixaz beteta. Kokoteraino naukazue, ez dakit zer egingo dudana, agian web cam bat ipini eta famatu egingo zarete edo portalean ezkutatu eta bertan norbait harrapatu, agian Artekaletako beste bizilagunekin elkartu eta eskarmentu on bat eman... Ez dakit, nahiko nuke zuek zuen kabuz konpontzea eta ez izatea horren zikinak eta komunak erabiltzea, baina nork daki... Ni ere ibilia nago jaietan eta gogortzen dut Xiripot taberna ondoan dagoen bidetxo hura nola ipintzen genuen eta esan behar dut asko konpondu zela bertan komun publiko mobil batzuk ipinita jaietarako. Gaur egungo kasuan ondo legoke komun batzuk ipintzea jaietarako Olaso dorre eta udaletxe arteko txokoan; behintzat, hura garbitzea errazagoa da eta zeinek daki... Agurtzera noa eta hurrengo jaixetan ondo pasatzea opa dizuet, baina nirekin eta hemen bizi garen kale hone-tan eta ingurukoekin ez pasatzea.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Ibarra kalea 6
20570 BERGARA



Telefona:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



Ikustekoa!

Oñatiko Herri guna eta Errosaixo Bixamon eguna 2010

Magazinea-n jarraipen berezia.
Astelehenean, urriaren 4an, 19:45ean, 21:15ean eta 23:15ean.

BABESLEA:  **60 urte**



Euskal Hezkuntzaren Legea eskatzen du Koldo Tellitu, hori dela-ko Euskal Herriko ikastolen

"lehentasuna". Titularitatean beharrean, eskaintzen den zerbitzuan oinarritutako "publiko-

tasunaren eredu berria" aldarrikatzen du. Sareen arteko lehiak "ez dauka zentzurik", dio. "Askok

sinisten dugu sare publikoan eta ikastoletan, euskal hezkuntza propioan", gaineratzen du.

Koldo Tellitu > Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko lehendakaria

"Guk sinisten dugu sare publikoan eta ikastoletan, euskal hezkuntza propioan"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Koldo Tellitu (Barakaldo, 1966) frankismoaren garaian ikastolan hazi zen ume haietakoa da. Txikitari Oñatira etorri zen, aita Tximist lantegian hasi zelako, eta gutxira Gasteizera joan zen familia, beste hainbat oñatiarrekin batera, hango Tximisteko (Cegasa) lantokira. Gasteizko Olabide ikastolan ikasitakoa, gaur egun Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko lehendakaria da.

Zela hasi duzue ikasturte berria Euskal Herriko ikastolek?

Ondo. Matrikulazio kopuruari dagokionez pozik gaude, gero eta datu hobekak dauzkagulako eta, gainera, krisi testuinguruan izan direlako. Bereziki nabarmentzekoa da Iparraldeko ikastolen gorakada.

Ez duzue igarri krisia matrikulazio kopuruan?

Ez. Ikastetxe itunduen sareak, Espainian, beherakada nabarmena izan du aurten eta hori krisiagatik dela ondorioztatu genezake. Bestalde, Isabel Zelaa sailburuak esan du lehen aldiz gehiago direla sare publikoan matrikulatu direnak. Baina ikastolak ez dugu beherakadarik igarri. Hortaz, beste ikastetxe itundu batzuek galdu dutela esan genezake.

Zer eskaintzen dute ikastolek beste ikastetxeek, sare publikoak esaterako, eskaintzen ez dutena?

Beste eredu bat: ikastola erdua. Horrek bi atal nagusi ditu: batetik, hezkuntza alorrean, gure helburu nagusia da kalitatezko euskarazko hezkuntza. Gure helburua da euskaldunak sortzea eta euskal jendartearekin konprometitutako pertsonak hezte; bestetik, auto-eraketak egiten gaitu berezi. Azken finean, gurasoak gara ikastolan erabakiak hartzen ditugunak.

Lurraldez lurralde non da ikastolen egoera hobea eta non larriagoa?

Eskualde bat nabarmenduko nuke: Arabako Errioxa. Hango umeen erdia baino gehiago ikastoletan matrikulatzen da. Gero, Gipuzkoan da ikastolen eragina handiagoa. Egoerarik kaskarreina Iparraldean dago, nahiz eta matrikulazioak gora egin duen asko. Frantziako Estatuarendako euskara ez da hizkuntza ofiziala eta, finantzazioari dagokionez, zailtasunik handienak Iparraldeko ikastolek dituzte.

Zein da Euskal Herriko ikastolen lehentasuna, erronka nagusia?

Euskal curriculumak, oraindik osatzeke dagoen proiektua. Gure hezkuntza zerbitzu guztiak, ikasmaterialak eta, egokitu egin behar ditugu euskal curriculumera. Hori, hezkuntzari dagokionez, eta; bestalde, ikastola guztiendako finantzazio iturriak hobetzea, dauden ikastolak egonkortuz eta berriak zabalduz. Etxabarrin ikastola berria egitera goaz, Arabako lautadan ere bai eta Bilbon, Harrobi Lanbide Heziketa errealtate izatea nahiko nuke. Lanbide Heziketan hankamotz gaude eta Bilboko proiektua estrategikoa da.

Euskal Herriko Ikastolen Europako Kooperatiba sortu zenuten iaz. Zergatik eta zertarako?

Ikastola guzti-guztiak batzen dituen kooperatiba da. Orain arte, lurraldeko antolatuta egon dira federazioetan ikastolak eta federazioek osatzen zuten konfederazioa. Orain, ikastolak zuzenean dira Europako kooperatibako kide. Gure antolaketa kolektiboa erraztu eta eraginkorrago bihurtu dugu: ikastolengandik gertuago dago erakundea eta ikastolen parte-hartze zuzena bultzatzen dugu. Gure egituraketa ulerterraza egin nahi dugu, kanpora eta barrura. Bestalde, nahi dugu ahots eta leihatila bakarria izatea ikastola guztiek. Kudeaketa errazten du eta gure ahotsa eta marka indartzen du.

Nafarroako ikastolen federazioa ez da kooperatibako kide. Zergatik?

Bai, Nafarroan ikastola bakarria da, oraingoz, Ikastolen Europako Kooperatibako kide. Konfiantza krisia izan dugu, erakunde erraldoia sortu dugulako. Bideak zabalik ditugu eta nahiko genuke ikasturte honetan Nafarroako ikastola guztiak kooperatibako bazkide izatea. Ikastolen historian, aldaketak izan ditugunean, halakoak ohi-koak izan dira. Erakunde erraldoia gara, jendartearen dugu eragina...

Zela ikusten duzue gobernu sozialistak bultzatu nahi duen hiru eleko hezkuntza eredu?

Euskara ardatz hartu eta eleantzasunaren markoan kokatzen den hezkuntzaren alde egin genuen ikastolak duela 20 urte.



Koldo Tellitu, Euskal Herriko ikastolen burua, Arrasaten.

ENEKO AZKARATE

IKASTOLEN KOOPERATIBA
"Nahi dugu ahots eta leihatila bakarria izatea ikastola guztiek, gure marka indartzeko"

BAKERAKO HEZKUNTZA PLANA

"Guk badugu geure proiektua, giza eskubide guztien babesean oinarritua"

Ikastolen Eleanitz proiektua ebaluatua eta saritua izan da urtean. Gure apustua argia da aspalditik. Edozelan ere, hiru eleko hezkuntzaren ereduaren plan pilotuan sartu dira gure lau ikastola. Proiektua ebaluatua izango da eta aterako ditugu ondorioak. Hori da positiboa.

Euskarak indarra galduko du hiru eleko ereduarekin?

Esperientzia pilotu eta praktikoa denez, egoerarik txarrean esperientziara batu diren ikastetxeetan galduko da. Baina gure

ikastoletan ez da galduko euskara. Hori argi daukagu.

Eskola 2.0 programa?

Guretzak ona izan da. Ikastolok bageneukan aurretik Ikasys proiektua eta Eskola 2.0 programak lagundu digu proiektu hori finantzatzen.

Zer moduz Ikasys?

Helburu jakinak zituen eta betetzen ari dira. Ikaslearen eza- gutza ordenagailuen bitartez, era praktikoan, garatzen da. Irakasleek ere modu zuzenean egiten dute jarraipena eta planteamendu egokia da.

Bakerako Hezkuntza Plana da sozialisten beste proiektu garrantzitsuetako bat. Kiritikoak izan zarete plan horrekin.

Bai, bereziki hasieran. Hezkuntza programa bat izan beharrean, bultzada politikoei erantzuten zien egitasmoa zen. Eragileekin berba egin barik plazaratu zuten proiektua. Guk badugu geure proiektua, giza eskubide guztien babesean oinarrituta. Geurea ikastola guztiekin adostu dugu, adituen ekarpenekin. Hezkuntza Sailaren mahaiaren gainean ipini dugu. Espero dut hasierako planteamendua baino zabalagoa izatea Bakerako Plana.

Euskal Hezkuntza Sistemaren legea aldarrikatu duzue sarri. Beharrezkoa da?

Ezinbestekoa, bereziki, guretzak. Gaur egun hezkuntza alorrean dagoen lege bakarria Hezkuntza Publikoaren Legea da. Euskadiko Eskola Kontseiluan ez daukagu ordezkariarik. Planifikazioa eta finantzazioa argitze-ko ezinbestekoa da lege berria. Guk aldarrikatzen dugu publikotasunaren eredu berria. Eztabaida berria behar dugu. Une honetan daukagun ereduak Jakobinismotik eratorritakoa da. Hori gainditu behar dugu. Hezkuntza zerbitzu publikoa da klabea. Orain, publikotasuna zehaztuta dago titularitatean eta gure ustez zerbitzuan zehaztu beharko litzateke. Sareen arteko lehiak ez dauka zentzurik. Elkarlana bultzatu behar da. Askok sinisten dugu sare publikoan eta ikastoletan, euskal hezkuntza propioan.

goiena.net/bideoak
Elkarriketa osoa, webgunean.

KIBUC GURE AMETSA ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

SUKALDE ETA BAINUETAN ESKAINTZA BEREZIA

BEZEROAREN NEURRI ETA BEHARRETARA EGOKITUTAKO
AURREKONTUAK EGITEN DITUGU.

- BARNEALDEAK DISEINATU ETA ZAHARBERRITZEN DITUGU.
- URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA DUGUN LANGILE PROFESIONALAK GARA.
- ETXEAN EDOZEIN ERATAKO BERRIKUNTZAK EGITEARI BURUZKO AHOLKUAK EMATEN DITUGU.



KIBUC
altzari eta osagarriak

Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC Gure Ametsa
altzari eta osagarriak

www.kibuc.com

*Zazpi ahizparen gai den oihala
ebakirikan erditik,
alde batera hiru soineko,
utzirikan lau bestetik;
guraiziakin berezi arren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oihal batetik.*

*Oihaltzat hartu zagun Euskadi
guraizitzat Bidasoa,
hibai koxkor bat besterik ez da
hutsa... balitz itsasoa.
Elkarren hurbil daude zazpiak,
muga daitzen da Pausoa.
Zergatik izan ez behar degu
famili bakar osoa?*

*Arbola baten zainetatikan
sortzen diran landareak
bezala gara Bidasoaren
bi aldetako jendeak;
berdinak dira gure jatorri,
ohitura eta legeak,
ama euskarak magal berean
hazitako senideak.*



Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

**Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati,
Muxibar, Taupa eta Gure Leku.**



JAIK > MARITXU KAJOI 2010

Maritxuk copyright beharrik ez duela erakutsiko du gaur

Komisiñoko kideek uste dute iurretarek jaia kopiatu izanak erakusten duela zerbait egin dutela ondo, jendeak gustuko duen jaia dela Maritxu

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Jaiak bultzatuz! leloa du aurten-go Maritxu Kajoiko eskapularioak idatzita. Eta eskapulario hori jantzita milaka Maritxuzale ibiliko dira orduotan, bertakoak eta kanpokoak, Arrasateko kaleetan: "Euskal Herri osoko jai batzorde, konpartsa eta bestelakoak izaten ari diren oztopo eta traben aurrean elkartasuna erakusteko keinua da, gu ere jai herrikoien alde gaudelako. Izan ere, badirudi agintari batzuek euren herriko jaietan herritarrak ikusle soil bilakatu nahi dituztela", adierazi digu Komisiñoko Haritz Zubietek.



Koadrilak 20:30ean batuko dira plazan, Maritxuri lore eskaintza egiteko.

GOIENKARIA

BESTE BATZUENDAKO EREDU

Gaur protagonista izango den Ama Birjinak bidelagun berria izango du gaur bertan Iurretan, Migeltxu Kajoi. Bidelagun batzuek, konpetentzia beste batzuek, eta kopia hutsa

askorendako: "Komisiñuek ez du Iurretan egingo duten jaiaren gainean iritzi ofizialik. Gure artean berba egin dugu horren gainean eta gauza positibo moduan ikusten dugu, jai bat kopiatzeak esan nahi duelako jendeak atse-

gin duela jai horren formatua, zerbait ondo egin dugun seinale. Gainera, Iurretan ere jai batzorde herrikoiei batek antolatuko du Migeltxu Kajoi, eta hori ere poztekoa da. Gainera, garagardoaren jaija asmatu zuena beste herri

batzuetan jai bera egiten delako protestaka hasiko balitz...".

Hala, aurten ere ardoz eta aldarrikapenez *bustita* dator Maritxu, baina lasai, eztarriak baino ez ditugu bustiko, eguraldi ona izango dugu-eta.

Droga testinga, eta autobus zerbitzua

Arrasateko Udaleko Prebentzio Zerbitzuak antolatuta, Ai Laket elkartearen eskutik Testing drogei buruzko informazio eta analisi zerbitzua egongo da gaur, Maritxu kajoi eguna. Otorala lizentziatua eta Ignazio Zuloaga kaleen artean furgoneta bat egongo da karpaxiki batekin, 23:00etatik 2:00ak arte. Bertan nahi duenak aukera izango du substantzien analisiak egiteko, drogen inguruko informazioa jasotzeko edota kezak argitzeko.

Bestalde, Pesak autobus zerbitzu berezia izango du gaur gauerditik hasita. Eibar-Eskoriatza norabidean autobusa orduro pasako da Arrasatetik, (00:45, 01:45, 02:45...). Eta, beste horrenbeste Eskoriatza-Eibar norabidean (00:15, 01:15, 02:15...). Oñatitik 00:00etan hasita orduro etorriko dira autobusak, eta Oñatira bueltan ere autobusak izango dira gaur (00:30, 01:30, 03:00, 04:00, 05:30, 06:30).

ALDEDI

Biteri etorbidea 8 ARRASATE Tel.: 943 79 13 05

ZERBITZUAK > LARRIALDIK

Heliportua egokituko dute Olandixoko tunelaren inguruan

Jaurlaritzak egingo du heliportua, Markulete aldeko Olandixoko tunelaren sarrera inguruan; laster hasiko dira lanak



Aldaketarik ezean, argazkiko zelai zati horretan egingo dute heliportua.

J.B.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Arrasatek osasun zerbitzuen dako heliportua izango du laster. Mendebaleko saihesbidea zabaldu aurretik istripu-simulazioa egin zen Olandixoko tunelean, eta orduan Jaurlaritzako Osasun Sailak egoki ikusi zuen tunelaren sarrera inguruko zelai baten heliportua egitea –argazkian ikusten den zelaia, Markulete industrialdearen aldetik–. Udalak onartu egin du proposamena, eta obrak hasteko baimena eman.

Orain arte Osakidetzak larrialdiren bat izan eta helikopteroa erabili beharra izan denean, Eroski ondoko Arruena parkean lur hartu du helikopteroak. Ez hori bakarrik: Arruena parkea okupatuta izan denean eta bertan lurreratzea ezinezkoa izan

denean –zirkua dela edo beste arrazoi batzuentatik–, Mojategiko futbol eta errugbi zelaian lurreratu izan dira. Bada, orain, larrialdietarako helikopteroak lur hartzeko behar bezalako gunea egokituko dute Arrasaten.

20.000 EURO GEHIENEZ

Esandako moduan, Markuleteko industrialdearen eremu bat aukeratu du Osakidetzak horretarako. Besteak beste, kontuan har-

tu du inguru hartan zein den haizearen eragina. Aurrekontuari dagokionez, gutxienez 15.000 euro eta gehienez 20.000 inbertituko dute heliportua egokitzeko obretan. Beraz, Udalak ondo ikusi du Jaurlaritzaren eskaera eta asteleheneko tokiko batzarrean eman zuen baiezkua. Hala, laster egokitzapen lanak egiten hasiko dira, eta, amaitzen dutenean, Arrasatek osasun larrialdietarako heliportua izango du.

EUSKALGINTZA > AED

Skate jaia bihar, aurrekoa bertan behera geratu ostean

J.B. > ARRASATE

AEDk joan den irailaren 25era-ko antolatu zuen skate jaia bertan behera geratu zen eguraldi eskasagatik. Hala, jaia astebete atzeratzea erabaki zuten eta, beraz, bihar egingo dute festa. Antolatzaileek espero dute oraingoan eguraldia lagun izatea.

GAZTE TXOKOAK ETA ARRASKA

Festan, Txatxilipurdiko gazte txokoen eta Arraska skate taldearen laguntza jasoko dute: 16:30etik aurrera izango da eta hiru gune izango dira: skate-

gunea, grafitigunea eta musikagunea. Skategunean gazte- txoek estilo librean jarduteko aukera izango dute. Gainera, jolasak egongo dira eta sari bat zozketatuko dute parte-hartzaileen artean.

Grafitigunean, bestalde, Arrasateko grafitigile batzuek eskolako pareta bat margotuko dute eta tailer bat egongo da gazteak kaleko artea ezagutzen has daitezen. Eta, azkenik, musika- gunean DJ Balza bergararrak zuzeneko musika jarriko du festa girotzeko.

> EUSKALGINTZA

Kilometroak jairako autobusak, 09:15ean Garibai geltokitik

Ohikoa den moduan, urriko lehen domekan egingo da Gipuzkoako ikastolen aldeko Kilometroak jaia. Aurten Lezon egingo da eta Debagune bailarako euskara elkarteek autobusa antolatu dute. Arrasatetik 09:15ean irtengo da autobusa, Garibaitik. Txartelak AEDn daude salgai 12 eurotan; bazki- deendako, 11 eurotan.

> IKASTAROAK

Pilatesa eta eskulanak Bedoña Batu kultura elkartearen eskutik

Eskulanak eta pilates ikastarok jarriko ditu martxan Bedoña Batu elkarteak. Pilates urriaren 5ean hasiko da; egun horretan saio irekia izango da pilatesa zer den ikasteko. Eskulanak, berriz, hamabostean behin egingo dira, egubakoitzetan. Ikastaroak auzoko eskola-etxean emango dira. Izena emateko: 696 749 317 edo 685 734 087.



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatzu

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

oharrak

DANTZAK

> Plazako dantzak

Gaur (egubakoitza) da plazako dantza tradizionalen ikastaroan izena emateko azkeneko eguna: 943 77 12 28, AED. Urritik ekainera dira eskolak, astelehenetan.

EUSKALTEGIA

> Udal Euskaltegia

Arrasateko Udal Euskaltegian oraindik zabalik dago izena emateko epea. Osakidetza edo administrazioako hizkuntza eskakizunak lortzeko, EGA edo 4. maila eskuratzeko... 943 79 70 77.

KINTOAK

> 1959an jaiotakoak

Azaroaren 13rako egin dute hitzordua 1959an jaiotakoek bazkaria egiteko. 12:30ean elkartuko dira Monten eta 14:30ean autobusez igoko dira Sarara. Izena emateko, 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutzako honako kontu korrontean: 3035 0001 57 0010119477, urriaren 27a baino lehen.

KINTOAK

> 1942ko emakumeak

1942an jaiotako emakumeek bazkaria egingo dute urriaren 23an. Interesa dutenek Mari Karmenean eman behar dute izena.

Horazio Argarate > Arrasateko parrokoa

"Arrasatearren eskuzabaltasun eta sinpatiak harritu nau"

UBANE MADERA > ARRASATE

Irailaren 11n, Jose Inazio Munilla gotzaina Arrasaten izan zen parroko berria izendatzen: Horazio Argarate (Eibar, 1966). Hala ere, kargua berria izan arren, justu gaur, egubakoitza (urriak 1), urtebete du Argaratek Arrasaten, orain arte abade lanak betetzen ibili da-eta, Urribarrin eta Musakolan. Oso gustura dago Maritxu Kajoiaren herrian.

Hortaz, orain San Juan parrokian bakarrik jardungo duzu?

Txandaka jarraituko dugu. Auzo askotan esan didate: "Orain utzi egingo gaituzu...". Eta ez. Egia da San Juanen jardun behar dudala, baina orain beste txanda batzuk antolatuko ditugu, auzo guztietan ibiltzeko baita ere. Taldean, oraingo, hiru abade gara: herrian urte asko egin dituen frantziskotarra, Jose Luis Arri-


zabalaga, eta beste abade berri bat etorri da, gazte-gaztea (32 urte), Imanol Prieto Zumarragakoa, Munillak berak bidali duena.

Aurkeztu ezazu zure burua...

Pertsona langilea naiz, baita lotsati samarra ere zenbait gauzatarako, harremanetarako askotan ez daukat erraztasun handirik, baina behin toki baten kokatuz gero, jendearekin lagun ona izaten naiz, eta ni, behintzat, prestu etorri naiz dakidan guztia eta daukadan guztia Arrasateko kristauen alde emateko eta baita ere, haien bitartez, herri osoari.

Etorri aurretik ezagutzen zenuen Arrasate?

Bai. Eibartarra izanda ez dago joera handirik honako, baina denok pasa gara hemendik festa batzuk direla... Urte batzuk Ber-



Horazio Argarate, abade-etxean.

UBANE MADERA

garan lan egiten eman nituen abadetu aurretik eta Arrasatera maiz etortzen ginen.

Festazalea zara, orduan, ala izandakoa, behintzat?

Eta jarraitzen dugu horretan. Nork ez ditu ezagutzen Maritxu Kajoi edo Santamasak...? Ibilitakoak gara.

Maritxu Kajoi zalea zara?

Sortzen den giroarena bai, behintzat. [Barreak]

Zer iruditzen zaizu Arrasate?

Zerbaitek harritu banau da jendearen sinpatiak eta eskuza-baltasunak; harrigarria da jendea zelan hurbiltzen den, eta zelan edozein gauzatarako prest azaltzen den. Benetan pozgarria izan da ze erantzun jatorra ematen duten edozer gauza eskatuta eta euren etxeetara joateko-eta... oso gauza bitxia iruditu zait.

Hori horren nabarmena da beste herri batzuekin alderatuta?

Adibide bat: Usurbildik joate-rakoan, lau urteren ostean, bihotz-bihotzez esan zidaten: hementxe duzu gure etxea. Arrasaten, berriz, lehenengo egunetik esan dit askok: hementxe duzu gure etxea. Esaldi bera da, baina bi momen-

"Maritxu Kajoin sortzen den giroaren zalea, behintzat, banaiz"

"Elizkizunak nahiko beteak daude: 2.300 pertsona domekero; baina nagusiak dira"

tu desberdinetan emanda eta bi izaerak islatzen dituen.

Arrasateko Eliza zein egoeratan dago?

Elizkizunak nahiko beteak daude: %10 domekero mezetara doa; badirudi gutxi dela, baina batez beste 2.300 pertsona dira, eta inork ez du batzen astero-astero halako talderik. Baina arazo handiena da beterik daudela, baina nagusiekin. Gazteekin edo gizon-emakume helduekin eten handia dago.

Ikasturteari begira, baduzue lehenetasunen bat?

15-16 urteko neska-mutiko talde bi-edo sortuko dira; azken urteotan zoritxarrez ezin izan dugu halakorik izan, baina aurtan bai.

Talleres Chapime, S.C.L

Debagoieneko Citroën Kontzesionario ofiziala.
San Andres auzoa 5. Arrasate | Tel.: 943 79 45 22
Tailerreko ordutegia: Astelehenetik egubakoitzera: 8:00-13:00 eta 15:00-19:00
Zapatuetan, enpresa eta langile autonomoei zuzendutako matentze lan zerbitzua.
(Aurrez deitu)

**MARITXU
ONAK PASA!**



**PATXI
CASTRO**

Era guztietako aukien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a

**943 78 71 65
639 01 69 69**

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

KULTURA > MUSIKA

The Kill Devil Hills datorren egubakoitzean Amaia antzokian

James Cruickshank izango da 'teloneroa';
Dan Baird & Homemade Sin-ek urriaren 29an eta
Greg Dullik azaroaren 6an joko dute Amaian

EDU MENDIBIL > ARRASATE

The Kill Devil Hills australiarak izango dira datorren egubakoitzean, urriaren 8an, Amaia antzokiko *hall*-ean, 20:00etan. Lehenbiziko bi diskoekin (*Heathen songs* eta *The drought*) arrakasta nabarmena lortu zuen The Kill Devil Hills taldea euren hirugarren lana aurkeztara dator: *Man, you should explode* (Bang! Records) izenburuko lana eman dute argitara Perth-ekoek.

Honako hauek dira taldeko kideak: Alex Archer (biolina, gitarra, klarineta, ahotsa, pianoa eta organoa); Brendon Humphries (ahotsa, gitarra akustikoa eta elektrikoa, pianoa eta organoa); Ryan Dux (baxua); Steve Gibson (bateria, perkusioa eta ahotsa); eta Steven Joines (gitarra akustikoa eta elektrikoa eta ahotsa). Taldea 2003an sortutakoa da eta haien erreferentzien artean, besteak beste, Neil Young,

Bob Dylan, Nick Cave, Beasts Of Bourbon, Drones eta Johnny Cash daude.

Australiarren zuzeneko indartsua azpimarratu dute taldearen jarraitzaileek. Lehen aldiz datoz Europa eta, esan bezala, Arrasaten egingo dute geldialdia datorren egubakoitzean. *Telone-ro* moduan James Cruickshank herrikideak (Melbourne, 1962) jardungo du. The Cruel Sea taldean jardun ondoren bakarkako ibilbideari ekin zion eta *Hello human* da haren azken diskoa.

DAN BAIRD & HOMEMADE SIN

Udazkenean, baina, beste pare bat musika hitzordu izango dira. Amaia antzokian: urriaren 29an Dan Baird & Homemade Sin-ek joko du, Gaztemaniak! zirkuituko programazioaren barruan. Ibilbide luzea dauka Dan Baird ezagunak: 1980ko hamarkadatik hona Georgia Satellites, The Dus-



The Kill Devil Hills talde australiarra.

GOIENKARIA

ters eta The Yayhoos taldeetan ibilitakoa da eta Arrasaten Warner Hodges (Jason & The Scorchers taldeko gitarrista), Mauro Magellan (bateria) eta Keith Christopher (gitarra) izango ditu alboan. Azkenik, azaroaren 6an Greg Dullik emanaldia egingo

du antzokian, *hall*-ean beharrean. Afghan Whigd-en ibili zene-ko abestiak zein Mark Lanegane-kin batera aurrera eramán zuten The Gutter Twins proiektuko abestiak joko ditu. Sarrerak 10 eurotan daude salgai www.generaltickets.com webgunean.

> KIROLDEGIA

**Gaur, egubakoitza,
19:30ean itxiko dituzte
Iturripe eta Musakola**

Gaur, egubakoitza, Maritxu
Kajoi jaia dela eta, lehenago
itxiko dituzte Musakola eta
Iturripeko kiroldegia.
19:30ean, hain zuzen.

Bestalde, Musakolako igerilekuko lanak direla eta Debagoieneko kirol karnetiko ez duten Aukeako bazkideek plus bat ordaindu beharra daukate Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko igerilekuak erabili ahal izateko. Argibideak Musakolako kiroldegian, 943 77 16 77 zenbakian.

> AUZOAK

Pilates eta eskulan ikastaroak Bedoña Batu elkartearekin

Bedoña Batu elkarteak pilates eta eskulan ikastaroak antolatatu ditu. Pilates eskolak martitzenetan izango dira. Bedoñako eskolan, 20:15etik 21:30era. Lehen saioa, urriaren 5ekoa, irekia izango da, pilatesa zer den ezagutu nahi duten guztiendako. Eskulanak hamabostean behin landuko dituzte, egubakoitzetan, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak: 696 74 93 17 (Maite) edo 685 73 40 87 (Dorleta).

n° R.P.S. 297 / 05.

Amagara

Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Mediku elkarg. zenb.: 6073

Udazkenarekin batera **iritsi da momentua**

Errekuperatu

Berrorekatu

Berritu

Murritzu

Birmoldeatu

Aurpegia

- Foto-gaztetzea (I.P.L laserra)
- Foto-sendotzea (I.P.L laserra)
- Terapia mediko-estetikoak
 - Betetzeak
 - Azido hialuronikoa
 - Botoxa

Gorputza

- Kabitazioa
- Birmoldatzea
- Dieta pertsonalizatua
- Mesoterapia medikoa

Etorri konpromisorik gabe!



Juanjo Arizmendi bergararrak zainduko ditu TAO guneak.

MONIKA BELASTEGI

UDALA > ZERBITZUAK

Astelehenean, urriak 4, isunak jartzen hasiko dira TAO guneetan

Bi asteko egokitze epealdia egin eta gero, ordenantza zorrotz betearazten hasiko dira

Isuna 20 euro izango da, baina kopurua erdira jaitsiko da 20 egunen barruan ordainduta

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udaletik jakinarazi dutenez, astelehenean, urriaren 4an, bukatuko da TAOra egokitzeko jarri zuten epealdia –irailaren 20an abiarazi zuten zerbitzu berria– eta ordutik aurrera, zorrotz betearazten hasiko dira arautegia. Beste berba batzuekin esanda, isunak jartzen hasiko dira, orain arte ez bezala, arau-hausterik eginez gero.

ARAU-HAUSTETZAT JOKO DIRA...

Arau-haustetzat hartuko dira ondorengoak: aparkatzeko denbora tarte gainditzea; tiketa ez hartzea edo ikusten den tokian ez jartzea; iruzur-asmoarekin erabiltzea elbarri txartela –edo ikurra–, hau da, elbarria ez den pertsona batek erabiltzea edo elbarri txartelaren jabea ez den beste edozein pertsona garraiatzeko erabiltzea; aparkatze-aldia

mugatua duen edozein gunetan aparkatzea berriz ere, ezarritako hiru orduko epea pasatu aurretik; eta manipulaturako, faltsututako edo iraungitako tiketa edo berezigarria erabiltzea.

Azkeneko arau-haustea izan ezik –hori larritzat joko da–, gainerakoak arinak izango dira eta, ondorioz, 20 euroko isuna ezarriko zaie. Hala eta guztiz ere, 20 egunen barruan ordainduz gero, isuna erdira jaitsiko da. Isunok ordaindu ahal izango dira tiket-makinan.

UDAL ARDURADUNAK, "POZIK"

Udal ordezkariak "oso pozik" dauka TAO sistemaren lehen emaitzeekin. "Oxirondo eta Ibargaraioko parkingetan eta erdiguneko kaleetan lekuak libre ikus daitezke, lehen ez bezala, eta bigarren lerroan lagatzen diren autoen kopurua ere nabarmen jaitsi da", dio Alfonso Alonso udaltzainburuak; eta gehitu du: "Oraingoz eraginkorra dirudi sistemak; hala ere, benetako emaitzak ikusteko bi hilabete, behintzat, beharko dira".

JENDARTEA > GAZTEAK

Urriaren 16an hasiko dira gaztetxoendako DJ jaialdiak Zabalotegi aretoan

12 eta 14 urte arteko gaztetxoei zuzenduta dago eta 18:30-21:30 ordutegia izango du; hileko bi jaialdi egongo dira urte bukaera arte

M.B. > BERGARA

Aurreko ikasturtean izandako arrakasta ikusita, Udalak erabaki du gaztetxoendako DJ jaialdiak antolatzea berriro Zabalotegi aretoan.

Hori horrela, 12 eta 14 urte arteko gaztetxoendako alkoholik gabeko gune bihurtuko da areto hori, hilean birritan; "Zapatu bat bai, bestea ez", Gazteria eta Hezkuntza teknikari Nagore Narbaitzak azaldutakoaren arabera.

18:30-21:30 ordutegia izango du eta neska-mutikoei dantza egin eta ondo pasatzeko aukera izango dute zenbait disko-jartzailek musika ipintzen duten bitartean.

GAZTETXOAK POZIK

Aurreko ikasturtean batez beste 130 neska-mutikok hartu zuten parte jaialdiotan. Gustura ibili ziren, gainera, eta hala adierazi zuten; hain justu ere, euren eskariz bilakatu da ekimen finko kultura egitarauan.

Narbaitza teknikariak esan duenez, oraingoz, urte bukaera arteko jaialdien egutegia zehaztu dute. Disko-jartzaileei dagokienez, hori zehazteko dutela aurreratu du.



Jaialdien egutegia

Urriaren	16an eta 30an
Azaroan	13an eta 27an
Abenduan	11n

EUSKARA > JARDUN ELKARTEA

Simon Arrietan hasiko du Jardunek jolasleku ibiltaria

M.B. > BERGARA

Ikasturte berriarekin batera jolasleku ibiltariari ekingo dio Jardun euskara elkarteak gaur, egubakoitza. Simon Arrietan egingo dute, 17:00etan hasita.

3 eta 9 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago eta ondo pasatzeko abesti, dantza, margo eta tailer sorta eroango dute Jarduneko begiraleek Simon Arrietara.

Hurrengo saioa hilaren 16an izango da, Irala kalean.

PLAZAKO DANTZEN IKASTAROA

Plazako dantzak ere ikas daitezke Jardun elkartearekin. Patxi Monterok emango ditu eskolak, martitzenetan 19:30-20:30 (hastapen maila) eta 20:30-21:30 (jarraipen maila) ordutegietan. Eskolak asteen hasi badira ere, oraindik izena emateko aukera dago Jardunen bulegoan edo 943 76 36 61 telefono zenbakian. Ikastaroaren prezioa da 12 euro hilean –10 euro Jarduneko bazkideek.



Negozio berrien hasieran erabateko aholkularitza

**Fiskalitatea
Kontabilitatea
Laborala
Inbertsioen aholkularia**

BERGARA
Labegaraiaeta industrialdea
Telleria, 6 bis, 2. bulegoa

ARRASATE
Garibai etorbidea 4

Tel.: 943 76 26 09 / 943 79 94 72
Faxa: 943 76 38 53
arkupe@arkupe.net - www.arkupe.net

CAMACHO
Drogeria
Lurrindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UDALA > AUZOAK

Euskaltzaindiaren arauak jarraituta, Elosu auzoaren izena 'Elosua' izango da aurrerantzean

Horixe izango da auzoaren izen ofiziala eta aldaketa onartu du dagoeneko udalbatzak

M.B. > BERGARA

Elosu auzoa *Elosua* idatzi behar-ko dugu aurrerantzean. Halaxe erabaki zuen udalbatzak asteleheneko ohiko osoko bilkuran, aho batez, Euskaltzaindiaren araei jarraituta.

Jaurlaritzak EAEko Izendegi Geografikoa egiten dihardu. Izendegi hori sartuko da Espainiako Izendegian eta Espainia-

koa, era berean, Europako Izendegi orokorrean sartuko da. Bada, hori horrela izan dadin, ezinbestekoa da Jaurlaritzaren izendegian izen ofizialak jasotzea, Euskaltzaindiak araututako moduan. Eta Elosu ez dago hala araututa.

1993an egin zion Udaleko Euskara Zerbitzuak kontsulta Euskaltzaindiari gai horren gainean, eta urte hartan egokitza jo zuen *Elosu* jartzea; baina 2001ean, Eudelekin batera EAEko toki-entitateen zerrenda argitaratzean, *Elosua*-ren aldeko hautua egin zuen.

Horrekin guztiarekin eta Eusko Jaurlaritzaren eskaria kon-

tuan izanda, berriz egin diote kontsulta Euskaltzaindiari eta berretsi egin du *Elosua*-ren aldeko hautua.

NOLA DEKLINATU?

Erabilerari begira, amaierako *a* artikulua duenez, izen arrunten moduan deklinatuko da, hau da: *Elosua, Elosuak, Elosuari, Elosuan, Elosuko, Elosutik, Elosura...*

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza egiten ari den Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografikoan azalduko dira *Elosua*-rekin batera, *Angiozar, Basalgo, Elorregi, Osintxu, Ubara eta Bergara* izenak.



GOIENKARIA

Duo Plaentxi Mizpirualden

Gustuko dute Duo Plaentxiko abeslariak Mizpirualde zaharren egoitza. Hainbat aldiz egon dira han, nagusienei betiko mexikar abesti ezagunekin eguna alaitzen. Azkenekoz zapatuan egon ziren eta *Veracruz, Flor silvestre* eta *La flor de la canela* -bikotearen arrakastetako batzuk- abestiak ez ziren falta izan.

oharrak

UDALA

> Udalak 2011n kaleratuko duen egutegirako argazki bila dabil

Egutegia aurreko urtekoen tankerakoa izango da, baina aurten gai monografiko bati buruzko argazkiz hornituko du. Landuko den gaia da: etxe-ata-riak, etxe-sarrerak, ateak, alda-bak.... Egutegirako aukeratutako argazkiak ordaindu egingo dituzte eta Udal Artxibategian jasota geldituko dira. Bestalde, egutegian publizitatea jarri nahi duten herriko dendari, ostalari, enpresa, talde, ikastetxe eta abarrei ere deia zabaldu nahi diete. Argazkia aurkezteko edo publizitatea jartzeko interesa dutenek Udaleko Euskara Zerbitzura dei dezatela. (943779129). Azken eguna da urriaren 20a.

ERRETIRATUAK

> San Joxepen salgai dute Gabonetako Loteria

San Joxepe elkartetik jakinarazi dutenez, dagoeneko salgai jarri dute Gabonetako Loteria egoitzako tabernan eta elkar-tearen bulegoan. Horrez gain, Internet, informatika eta Excel

ikastaroak ere egingo dituzte laster. Informazio gehiagorako jo bulegora.

IKASTAROA

> Eraginkortasunez gidatzeko ikastaroa bihar kultura etxean

09:30-13:30 orduetara egingo dute eta parte hartzeko ezinbestekoa izango da B motako gidabaimena izatea, gutxienez sei hilabeteko antzinasunarekin.

HEZKUNTZA

> Esperientzia Eskolan izena emateko epea zabalik dago

50 urtekoei zuzenduta dago. Eskolak martitzen, eguazten eta eguenetan izango dira, 10:00-13:00 orduetara, Miguel Altunan. Izenematea da Bizikasi zerbitzuan eta urteko matrikula 275 euro da -epeka ordaintzeko aukera dago-. Eskolak urriaren 19an hasiko dira.

KINTADA

> 1968an jaiotakoek afaria egingo dute urriaren 30ean

Izenematea da urriaren 15a baino lehen -10 euro aurrerata-, Deportivo tabernan.

HEZKUNTZA > ELKARTRUKEA

Mariaren Lagundiko 23 ikasle Holandara doaz bihar, hango ikastetxe batekin elkartrukean

Groenlo herrira doaz elkartruke programa baten barruan eta Holandako ikasleak apirilean etorriko dira gurera

M.B. > BERGARA

Mariaren Lagundia ikastolako 23 ikasle eta bi irakasle Holandara abiatuko dira bihar, zapatua. Astebeterako doaz, Groenlo herrira, hango Marianum ikastetxearekin elkartrukea egitera.

Hango ikasleekin, sukaldeko ohiturak erakutsiko dizkiete elkarri, hango familien bizimodu ezagutuko dute, irteerak egingo dituzte, talde jokoak, zientzia esperimentuak...

Atzerrira bidaiatzeak ikasleendako dituen onurez jabetuta ekin zioten Mariaren Lagundian



Holandara joango den ikasle taldea.

MARIAREN LAGUNDIA

halako elkartrukeak egiteari. Eskolako arduradunen esanetan, elkartruke programek balio dute "norbere identitatearen barruan ixteko joera gainditzeko eta aniztasunarekiko errespe-

tuan oinarrituta besteak onartu eta ulertzeko", besteak beste.

Elkartruke programaren barruan Marianum ikastetxeko ikasleak ere etorriko dira Bergarara. Apirilean izango da hori.

trinmer
telecomunicacionestdt
televisión
digital
terrestre

GOITB jada LTDn! Egokitu zure antenna GOITB-DIGITALA ikusteko.

TRINMER 20 urte antenetan

LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne



TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 **EIBAR**

Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxe: 943 20 73 60 | antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

FUTBOLA > LAGUNTZA DEIALDIA

Ekonomikoki laguntzeko kanpaina abiarazi du Bergara futbol taldeak

Bazkide berriak egiteko kanpaina abiaraztearekin batera publizitatea egiteko aukera ere eskaintzen du klubak

X.U. > BERGARA

Bergara futbol taldeak ekonomikoki bultzada emango dion kanpaina abiarazi du. Taldearen egoera ez da batere ona, geroago eta dirulaguntza gutxiago daudelako eta klubak gastu handiak dituelako.

Bergarak 250 neska-mutiko federatu ditu 13 taldetan banatuta –emakumezkoak lau eta gizonezkoak bederatzia–, eta horrekin batera futbol eskola ere badute –100 neska-mutiko–. Gastu horiei guztiei aurre egiteko 185.000 euroko aurrekontua du taldeak, eta 25.000 euroko dirulaguntzak baino ez.

Klubean guztira 40 lagunek egiten dute Bergara futbol taldearen alde lan, ezer kobratu barik, baina hor ere gastuak daude: entrenatzaileen prestakuntza, esaterako.

HAIBAT AUKERA

Hala, bultzada ekonomiko hori lortzeko hainbat formula jarri ditu martxan Bergarako zuzendaritzak: batetik, bazkide-babesleak; haiek 90 euro ordaindu beharko dituzte urtean, eta Bergarako denda eta bestelako enpresei eskainiko zaie aukera hori. Babesle arruntek, berriz, 60 euro ordainduko dute urtean.

Agorrosinen publizitatea jartzeko aukera ere badago, 360 euro ordainduta, eta baita publizitatea elastikoetan jartzeko ere (1.300 euro ekipazio osoa). Hala, Bergara futbol taldeari laguntzeko asmoa duenak klubean izango du informazio guztia, edo 943 76 02 37 eta 666 57 96 82 telefono zenbakietan.

> ZOZKETA

Bergarako Realzaleak taldeak zozketatutako autoa 6.574 zenbakia duenak irabazi du

Bergarako Realzaleak taldeak zozketatutako autoak dagoeneko badauka jabea: 6.574 zenbakidun txartela erosi zuen laguna, hain zuzen. Domekan zenbaki hori izan zen Loteria Nazionean sari-tua eta zenbaki hori erabili dute autoaren zozketa egiteko ere.

Bada, zuzenketa egin beharra daukagu, egubakoitzean argitaratu genuelako ONCEko zozketa izango zutela kontuan.

Alex Gardoki > BKEko saskibaloia eskolako arduraduna

"Herrian saskibaloiak aurrera egin dezan saskibaloia eskola sortzea ezinbestekoa da"

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergarako saskibaloia elkarteak azken bizpahiru urte hauetan izan duen bultzadaren hurrengo pausoa izan da saskibaloia eskola sortzea. Alex Gardoki (Bergara, 1968) izango da saskibaloia eskolaren arduraduna eta ekimen berri horren nondik norakoen gainean egin digu berba.

Hasiera baten urriaren 5ean abiarazi behar zenuten saskibaloia eskola, baina astebete atzeratuko da.

Bai, hala da. Datorren aste-buruan informazioa banatuko dugu ikastetxeetan eta neska-mutikoei aukera izango dute saskibaloia eskolan izena emateko. Ondoren, gurasoei batzar bat egin nahi dugu, azaltzeko zein den gure helburua eta haien seme-alabak zertan ibiliko diren.

Ze adinetako gazteei egongo da zuzenduta saskibaloia eskola?

Alebin (2001 eta 2002an jaio-takoak) eta benjamin (1999an eta 2000n jaio-takoak) mailetan dauden neska-mutikoei egingo dugu lan. Entrenamendu saioak Mariaren Lagundian egingo ditugu, alebinek martitzenetan (18:30-19:30) eta benjaminiek eguaztente-tan (18:00-19:00). Ondoren, beste herri batzuetako gaztetxoekin partidutxoak antolatzea da asmoa.

Herrian saskibaloia sustatzeko ahalegin handiak egiten ari zarete klubetik, eta eskola hau da hurrengo pausoa.

Bai. Ni iritsi berria naiz Bergara saskibaloia elkartera, eta harrituta jarraitu dut azken urte hauetan klubak izan duen bultzada. Orain benetako kluba gara, etengabeko formazioa duten entrenatzaileak ditugu, kirol zuzendaria, laguntzeko gertu dauden gurasoak... lehen pertsona berak egiten zuen taldea entrenatu eta kalean kartelak ipini. Hori aldatu egin da, eta lantalde polita dago.



Alex Gardoki, aste barruan, Bergaran.

X.U.

"Datorren astean hasiko gara ikastetxeetan saskibaloia eskolako informazioa banatzen"

"Bergarako neska-mutikoei urte osoan zehar saskibaloia gerturatu nahi ditugu"

Lan hori errematatzea falta zen.

Horixe ikusi dugu, eta horregatik sortu nahi dugu kirol eskola. Azken urte hauetan antolatu dugu hiruko saskibaloia txapelketa, asteburuetan hastapeneko saskibaloia jarduerak egin ditugu –ekainean, bi asteburutan 140 neska-mutikotik gora egon ziren saio horietan esku hartzen–, baina lan hori egin eta gero ikusten genuen ez genuela klubean etekinik lortzen, egun bateko kon-

tuan geratzen zela guztia. Hala, saskibaloia eskolarekin gazteak urte osoan erakarriko ditugu saskibaloira, hori da klubean nahi duguna.

Harrobia lantzeko modua, azken baten.

Gogoan dut lehen infantil mailan gure gazteak sekulako jipoiak jasotzen zituztela, ordu-ra arte saskibaloia zer zen ere ez zekitelako. Orain, jolasen bitartez saskibaloia ezagutzen joango dira.

Kirolak dituen balioak gaztetatik irakasten ere ahalegin-duko zarete.

Esperientzia berritzailea da, eta helburu nagusia saskibaloian prestakuntza teknikoa izango da, baina horrekin batera beste alderdi batzuk ere sustatuko ditugu: talde lana, taldekideei eta kontrarioari errespetua izatea, adiskidetasuna, ohitura osasuntsuak hartzeak duen garrantzia...

Marrazki eta pintura klaseak

Edurne Eraña

Teknika guztiak

651 74 21 54
943 76 40 14

Arrizuri 5, 1.C
Bergara

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ANTZERKIA > HAURRAK

Haurtzaindegiko istorioak aktore eta txotxongiloek kontatuta

Antzezlanak bihar izango da Zabalotegin 17:00etan, 3 euroren truke; 55 minutu inguru irauten du 'Zer duzu negarrez, Marie?' lanak

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Haurrei zuzendutako antzerkia izango da bihar Zabalotegin. Haurtzaindegi bateko zaindarien haur bihurri batekin bizi dituzten istorioak ekarriko dizkigu Marie de Jongh antzerki taldeak.

Antzerkia bihar, zapatua, izango da Zabalotegin, 17:00etan. Sarrerak 3 eurotan egongo dira salgai.

HAURTZAINDEGIAN GIROTUTA

Antezlanak haurtzaindegi batean girotuta dago. Istorioak kontatzen du haurtzaindegi bateko jabeak eta langileek neskato bihurri batekin duten harremana.

Neskatilari ezin diote neurria hartu eta, gainera, gainontzeko umeen zainketa zailtzen du. Edozelako trikimailuak erabiliko dituzte neskato deabrua mendearen hartzeko, eta azkenean konturako dira haurrak maitasun falta izugarria duela.

Aktoreen lana eta txotxongiloak uztartzen ditu *Zer duzu negarrez, Marie?* lanak. Taularen gainean aktore hauek izango dira: Ana Meabe eta Javi Renobales. Txotxongiloekin, berriz, Eider Eibar ibiliko da.

TESTURIK GABEKO LANA DA

Batez ere, 5 eta 12 urte bitarteko haurrendako moduko lana da biharko antezlanak. 55 minutu inguru irauten du, eta esan behar da testurik gabeko antezlanak dela. Tragikomedia den arren, umoreak protagonismo handia du lanean.

Jokin Oregi da obraren zuzendaria eta baita egilea ere. Marie de Jongh talde euskalduna nahiko berria da antzerkigintzan; euren lanak familia guztiari zuzendutakoak izaten dira. Esan behar da taldeak hainbat sari irabazi dituela *Zer duzu negarrez, Marie?* lanarekin.



Javi Renobales eta Ana Meabe aktoreak taula gainean.

GOIENKARIA

ZINEMA

'Avatar' eta 'Agora' filmak Zabalotegin

Zapatu eta domeketan izango dira emanaldiak, 19:30ean

A.E. > BERGARA

Urriko ikuskizunaren saila prestatu dute Zabalotegi aretoan. Oraingo hilean film hauek eskainiko dituzte: *Avatar* eta *Agora*.

Datorren aste bukaeran egongo da aukera herrian *Avatar* film entzutetsua ikusteko. James Cameronek gidatutako filma hilaren 9an 19:30ean eta hilaren 10ean 19:30ean eskainiko dute. 13 urtetik gorakoei zuzendutako filma da eta 155 minutu irauten du.

AMENABARREN 'AGORA'

Hirugarren aste bukaeran, Alejandro Amenabarren *Agora* eskainiko dute. Zapatuan ez da emanaldirik izango; domekan, hilaren 17an, 19:30ean izango da emanaldi bakarra.

Haurrei zuzendutako bi film ere emango dituzte: hilaren 9an eta 10ean *Alvin y la ardillas 2* marrazki bizidunen musikala, 17:00etan; eta hilaren 17an, 17:00etan, *Rompe-dientes* komedia fantastikoa. Umeen saioa 2 euro da eta helduena, osterara, 3 euro.



Avatar.

GOIENKARIA

> JARDUN

Dagoeneko hasi dute 'Dantza... Jalgi hadi plazara!' ikastaroa

Jardun euskara elkarteak bihar hasiko du 2010-2011 ikasturtea. Hala ere, martitzenean hasi zuten dantza ikastaroa, urriaren 12an jai izango dute-eta.

Patxi Montero irakasleak emango ditu eskolok. Taldeko euskal dantzak erakutsiko ditu eta saioak martitzenean izango dira, ordubetez. Bi taldetan banatuta egongo dira ikasleak: hastapeneko taldea 19:30etik 20:30era eta jarraipen taldea 20:30etik 21:30era. Jarduneko ordezkariak adierazi dute oraindik badagoela aukera izena emateko.

UDALA > EGITARAUA

Haurren antzerkia, txotxongiloak eta era guztietako musika emanaldiak urrian

Aurten nazioarteko txotxongilo mostraren 10. edizioa izango da eta hilaren 22tik 24ra ospatuko dute

A.E. > BERGARA

Dagoeneko prest dauka Kultura Sailak urriko kultura gida. Urtero bezala, txotxongiloen nazioarteko mostrak leku berezia izango du herriko kultura agendan.

Aurtengoa, gainera, 10. edizioa izango da. Ospatzeko, urteurren borobila: urriaren 22an, 23an eta 24an ospatuko dute txotxongilo mostra.

HAURREN ANTZERKIA

Haur txikiei eskainitako kale antzerkia egongo da San Martin plazan hilaren 15ean. Udalak Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren laguntzarekin antolatutako ikuskizuna izango da, 18:00etan.

Oihulari Klown taldeak *Mamu txikiak* kale antzerkia eskainiko du.

GUSTU GUZTIENTAKO MUSIKA

Urriaren 16an, 12 eta 14 urte bitartekoendako DJ jaialdia egongo da Zabalotegin. Dantza saioa doan izango da. Hilaren 30ean ere, DJ saio bera izango dute herriko gaztetxoek. Bi musika saioak izango dira 18:30etik 21:30era.

Hilaren 17an, osterara, Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du pilotalekuan. 12:30ean hasiko da.

Bestalde, urtero bezala, nazioarteko organo zikloa egingo da urri osoan zehar, San Pedron.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13



Argazkia Kiñu

JAIK > SAN MIGELAK ETA ERROSAIXOAK

Jaietako ekitaldi herrikoienak, gaurtik astelehenera arte

Herri Egunak eta Errosaixo Bixamon egunak lepo beteko dituzte herriko txoko guztiak: unibertsitate ingurua, plaza eta kiroldegia, besteak beste

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Txantxikuaren jaiatsierarekin jai giroan murgildu ziren oñatiarrak martitzenean. Herriko jai nagusietako lehen etapa erre dute dagoeneko, eta eguraldiak lagunduta jai giroa izan da nagusi herrian. Batez ere, plaza inguruan eta txosnagunean.

Ekitaldi gehienek erantzun ona jaso zuten herritarren aldetik: danborradak, musika bandaren kontzertuak, Etxaluzeko

haur parkeak eta San Migel Bixamon eguneko sokamuturrak. Baina, duda barik, herritar gehien bildu zuena Makalenakoen herri antzerkia izan zen. Unibertsitate ingurua lepo bete zen *Lizargarateko Txamao* delako antzezlanaren ikusteko. Era berean, L'Explorateur kale antzerkiak ikusmin handia piztu zuen.

Txosnagunean ere giro ona egon zen. San Migel egunean pilota txapelketako finalak jokatu

Txosna batzordearen egitaraua

Egubakoitza, 1

19:00 Kaleblock popularra.
21:00 Herri-afaria (txartelak Ona tabernan salgai).
21:30 Kaleko festia: Klabo Oxidado, Nos la Suda, Annunaki Revenge eta Karkaba taldeekin.

Zapatua, 2

19:30 Euskal presoan aldeko ekitaldia.
21:00 Kontzertuak Txato Plato eta Miren, Agur eta Gorka taldeekin.

Domeka, 3

17:00 Tortilla txapelketa.
22:00 Bideo emanaldia: *Jaia bai, borroka ere bai*.

Astelehena, 4

14:00 Paella jana.
17:00 Di-Bertsioak.



Amaia Txintxurreta emakumeen konpainia gidatzen Txaketuako bidegurutzean.



Trikitaranga taldekoak, plazan.



Hiru neska-mutiko barraketan.



Txantxikua institutuko balkoira heltzen.



Hipo eta Tomax pailazoak herriko neska-mutikoekin.



Mutiko bat Etxaluzeko puzgarrietan.



Inazio Ibarondo musika bandaren kontzertua zuzentzen.



Tiratzaileak platera apurtzeko gertu, Txopekuako zelaian.



Olaitturri elkarteak *Lizargarateko Txamao* antzezlanaren une baten.

ARGAZKIAK: MIREIA BIKUÑA.

eta baba-jana egin zuten. Gaue-tan ere giro ona egon da hainbat taldek egindako zuzenekoetan. San Migelen ondotik, Errosai-xo jaiak ospatuko dituzte gaur-tik astelehena arte. Hala, bertso-ekin hasi eta mozorroekin buka-tuko dituzte jaiak oñatiarrek. Iturriaga, Lujanbio, Lizaso, Amu-ritza, Artzallus eta Maia ibiliko dira bertсотan kiroldegian, 22:30ean. Bihar, Herri Eguna, unibertsitate inguruan eta plazan pilatuko dira ekitaldi gehienak:

askotariko erakusketa eta lehia-ketak eta sagardo dastatzea egin-go dituzte. Gainera, herri bazka-ria egingo dute kiroldegian eta herri kirolen jaialdia plazan.

ASTELEHENEAN, MOZORROAK Domekan, besteak beste, Hortz-muga taldearekin kale antzer-kia eta profesional mailako pilo-ta partidua jokatuکو dituzte. Astelehenena mozorroak kalera ateratzeko eguna izango da. Zein izango da mozorro originalena?

Udal egitaraua

Egubakoitza, 1

22:30 Zubikoa pilotalekuan bertso jaialdia. Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Miren Amuritza, Amets Artzallus eta Jon Maia.

Zapatua, 2

HERRI EGUNA

09:00 Txistulari Bandaren goizeresia.
10:30 Unibertsitate inguruan:
> Herriko behi erakusketa.> Herriko ardi, ahari eta bildots lehiaketa.
> Asto erakusketa.
> Behor, zaldi eta pottoka erakusketa.
> Euskal txerri eta oilo erakusketa.> Gazta, fruitu eta barazki lehiaketa.
> Lore eta landare erakusketa.
> Artisau erakusketa.
11:00 Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako trikitilariak eta Tolosako gaitariak.
12:00 Sagardo dastaketa Foru plazan.
14:30 Zubikoa kiroldegian, herri bazkaria.
18:00 Foru plazan, herri kirol jaialdia. Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoa kiroldegian.

19:30 Parrokian F. Esnalen salbea, parrokiako korduak eta Oñati Abesbatzak abestuta.
20:30 Foru plazan, Trikitake taldearekin erromeria.
20:30-23:30 Unibertsitate etorbidean, borondatezko alkohol proba.
23:30 Plazan, Trikitake taldearekin erromeria.

Domeka, 3

ERROSAIXO EGUNA

09:00 Txistulari Bandaren goizeresia.
12:00 Parrokian elkar meza nagusia, parrokiako korduak abestuta.
12:00 Oñatiko Udal Musika Bandaren kalejira.
12:00-14:00 Etxaluzen haurrendako eta gaztetxoentzako parkea.
13:00 Udal Musika Bandaren kontzertua Foru plazan.
17:00 Zubikoa pilotalekuan, profesional mailako pilota partidua: Idoate-Goñi II.a/Olazabal-Ladis Galartza

eta Martinez de Irujo-Laskurain/ Xala-Paskual.
17:00-20:00 Etxaluzen, haur eta gaztetxoentzako parkea.
18:00 Foru plazan, Hortzmuga taldearen *Olimpikas 2012* kale antzerkia.
20:00 Foru plazan La Dama orkestrarekin dantzaldia.
20:30 Balkoitik balkoirako bertso saioa.
23:00 Musika, piroteknia eta argi ikuskizuna Foru plazan.
Ondoren, La Dama orkestrarekin dantzaldia.

Astelehena, 4

ERROSAIXO BIXAMONA

09:30-10:00 Poneyak plazan.
10:00 Sokamuturra plazan.
12:00 Oñatiko Musika Bandaren kalejira.
12:30-14:00 Mozorro erakusketako sari banaketa.
16:30-17:00 Poneyak plazan.
17:00 Sokamuturra plazan.
18:30 Klowntutkada dantza eta perkusio kalejira.
20:00 Foru plazan Egan taldearekin dantzaldia.
23:00 Foru plazan Egan taldearekin dantzaldia.

Zapatua, 9

17:00 27. Arrasate-Oñati herri lasterketa.
Ondoren, Okela dastatzea plazan.

Domeka, 10

19:30 Foru plazan *Dantzaria naiz* emanaldia Verdini dantza taldearen eskutik.
Ondoren, *Lorearen nahia* dantzaldia.

Urriak 15- Azaroak 7

18:00-20:00 *La frontera, mezcla entre culturas* argazki erakusketa kultura etxeko erakusketa gelan. Astelehenetik domekara (18:00-20:00)

Zapatua, 16

19:00 Gazte zendutako Arzuaga anaien aldeko meza agustindarretan.
Ondoren, Coro de Voces Graves de Pamplona tadeak kontzertua eskainiko du.



ARGAZKIAK: MIREIA BIKUÑA

Aitor Renteriaren lana (ezkerrean) eta Carlos Espigarena.

PINTURA > AGERIKO VIII. PINTURA LEHIAKETA

Lehen saria Renteriaren olio-pinturarendako

21 margolarik hartu zuten parte ageriko margo lehiaketan; irabazleak 600 euro eroan zituen

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Aitor Renteriak irabazi zuen Oñart taldeak antolatutako ageriko VIII. margo lehiaketan helduendako lehen saria, eta Ane Corralek, 16 urtetik beherakoa. Guztira, 21 lan aurkeztu ziren lehiaketara: 12 helduen kategorian eta bederatzi ume-nean.

Renteriak 600 euro irabazi zituen egindako olio-pintura-rengatik: Txaketuako bidegu-

rutzea eta Kale Zaharraren hasiera margotu zituen. Bigarren sariko 400 euroak Jose Ramon Guerrak irabazi zituen eta hirugarren saria (300 euro) Carlos Espigak. 16 urtetik beherakoetan bigarren saria Iker Corralek eroan zuen eta hirugarrena Alex Gordoa oñatiarrak.

Epaimahaiko kideak –Luis Laskurain, Mirari Sagartzazu eta Leire Fernandez– "oso gustura" zeuden margoen mailarekin.

IKASTAROKO LANAK

Ageriko pintura lehiaketara aurkeztutako 21 margoekin eta Luis Laskurain irakaslearen ikastaroetan egindako lanekin erakusketa egin dute. Urriaren 12ra arte ikusgai egongo da kultura etxeko gelan, astelehenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara.

Dena den, Errosaixo jaiak direla eta, egun zehatz batzuetan bakarrik zabalduko dute erakusketa gela: hain justu, astelehenetik (urriak 5) urriaren 12ra arte egunero zabalduko dute. Aldiz, urriaren 2an, 3an eta 4an itxita egongo da.

ZERBITZUAK

Oñargik bulegoa lekuz aldatuko du

M.B. > OÑATI
Oñargik, Oñatiko Udalaren Argi zerbitzuak, bulegoa lekuz aldatuko du datozen egunotan. Udaletxetik Bidebarrieta kaleko 24ra eroango dute. Hain zuzen ere, Argentinako elkartasun taldeak materiala batzen duen lokalaren ondoan jarriko dute egoitza berria. Datozen egunotan lekualdatzea egingo dute eta Bidebarrietan zerbitzua ematen hasiko dira urriaren 13an. Herritarrendako arreta zerbitzua egunero emango dute, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara. Telefono zenbakia berbera da: 943 78 07 08.

PREBENTZIOA > KANPAINA BEREZIA

Unibertsitate aurrean egingo dituzte bihar arratsaldean borondatezko alkohol probak

Iaz 404 proba egin zituzten eta 252 pertsonak positibo eman zuten: 173 gizonezkoak ziren eta 79 emakumezkoak

M.B. > OÑATI
Errosaixo jaiak aprobetxatuz, laugarren urtez egingo dituzte borondatezko alkohol probak, Udaleko Prebentzio Sailak eta Sasoia elkarteak antolatuta. Hain zuzen ere, bihar arratsaldean egingo dituzte, 20:30etik 23:30era arte, Unibertsitate etorbidean. Tarte horretan, alkohol proba egin gura dutenek horre-

tarako aukera izango dute. Sasoia elkarteko kideek Ertzaintzak erabiltzen dituen alkoholi-metroak erabiliko dituzte. Gainera, hainbat aholku emango dizkiete; besteak beste, positibo eman dutenei autoa hartzeko zenbat denbora itxaron behar-ko duten esango diete.

62 PERTSONA, GIDATU EZINIK
Iaz, Herri Egunean 404 proba egin zituzten. Egindako alkohol-proben %62,38 positiboak izan ziren, 173 gizonezkoenak izan ziren eta 79 emakumezkoenak. Gainera, positibo eman zuten 62 pertsonak (bost emakume eta 57 gizon) odoleko alkohol maila handia zuten eta Sasoia elkartekoek autoa ez hartzeko aholkatu zieten.

**Abantailaz
betetako kluba!**

**Goiena
kluba**

IRAILEKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



**LIBURU
SORTA BAT**

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**ARRIKRUTZERA
BI SARRERA**

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**ESAIT-EKO
MAILLOTA**

Bidali KLUBA MAILLOTA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**UMEENTZAKO
PUZZLEA**

Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



**SARI NAGUSIA
UZTAILA-URRIA**

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

**WII SPORTS RESORT
PACK TXURIA**



Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.

Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Angel Fernandez *El Torbellino* toreatzaile eta boxeolari izandakoa.

ARETXABALETAKO UDAL ARGAZKI ARTXIBOA

KULTURA > ARKUPEKO EGITARAUA

'El Torbellino' toreatzaile eta boxeolari aretxabaletarraren gaineko erakusketa, gaur hasita

36ko gerrak gurean egindakoak jaso dituzte 'Malko gorriak' ikus-entzunezkoan eta hilaren 21ean aurkeztuko dute

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Gaur hasi dugun urrirako ekitaldi asko eta erabat ezberdinak antolatu ditu Kultura Sailak Arkupe. Erakusketa aretoan, Angel Fernandez *El Torbellino* ezizena-ekin ezagun izandako toreatzaile eta boxeolari aretxabaletarraren gaineko erakusketa dago. Argazki artxiboak antolatu du

eta argazkiekin batera ringa jarri dute, eta toreatzaile arropak.

Bestalde, kirolaren gaineko berbaldia dago datorren egunean (19:00) Zaraia aretoan. Ane Remedios eta Ane Coranti adituek *¿Te conviene el deporte que practicas?* hitzaldia egingo dute.

HASH ETA MOTXILA 21 TALDEAK

Ikus-entzunezkoei dagokienez, bi izango dira: Miguel Hernandez poetari eskainitakoa, *Miguel Hernandez 100 años de presencia*, Jose Andres Alvaro Ocarizen eskutik hilaren 14an; eta *Malko gorriak* DVDaren aurkezpena, 21ean. Espainiako gerra gurean zelan bizi izan zen jaso dute ikus-entzunezkoan eta filma bota aurretik oroimenaren autobusa egongo da.

Musikaren tarte bi taldek beteko dute: Hash taldearen kontzertuak hilaren 9an eta Motxila 21 taldearenak 16an.

ZINEMAREN ITZULERA

Umeedako ikuskizunei dagokienez, hiru izango dituzte: Malas Compañías taldeak eskainita *Ukelele jauna*, hilaren 10ean; Elsa Pamparacuatro ipuin kontalaria-aren eskutik *Euskal Herriko leindak*, 23an; eta Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen *Konfetti* ikuskizuna, hilaren 24an.

Hil bukaeran zinema itzuliko da Zaraia aretora. *80 egunean* eman- go dute zineklubaren barruan, hilaren 28an; *Centurion*, urriaren 29an, 30ean eta 31n; eta *Toy Story 3* ume- endako, hilaren 31n.

ERRETIRATUAK > IKASTAROA

Lehen sorospenak zelan egin jakiteko ikastaroa dute erretiratuek institutuan

Urriaren 13an eta 14an izango dira eskolak (15:00-17:00), baina izena datorren astean eman behar da

M.A. > ARETXABALETAKO

Basotxo erretiratuen elkarteak lehen sorospen ikastaroa antolatu du erretiratuendako. Aurten egingo duten bigarrena da eta istripu baten aurrean zer egin jakitea oso garrantzitsua dela jakinik antolatu dute. Urriaren 13an eta 14an izango dira bi orduko eskolak (15:00-17:00) Markole auzoan dagoen Aretxabaleta ins-

titutuan. Izena emateko egunak, oster, hilaren 5a eta 6a dira, Basotxon bertan (11:00-12:00). Debalde da ikastaroa.

ZAURIK ETA ERREDURAK OSATU

Erizain bi izango dituzte gidari eta irakasle erretiratuek, tartean Naiara Olabarria aretxabale- tarra. Zauriak zelan osatu, erre- durak zelan zaindu, konortea gal-

du duenari zer egin, istripu baten aurrean zelan erantzun, ezta- rrian zerbait trabatuz gero zelan atera eta beste hainbat argibide emango dizkiete elkartutakoei. Ohitura txarrak zuzendu -erre- durei ura bota...- eta egin behar ez direnak jakiteko ere izango da ikastaroa. Esandakoak idatziz jasoko dituzte etxean berrikusi eta gogorarazteko, eta, gainera, ikasitakoa praktikan jarriko dute institutuan dauzkaten panpinak erabilita.

Ekainean egin zuten Basotxo antolatutako sorospen lehen ikastaroa eta orduan 12 emakume elkartu ziren: "Guz- tiok izan beharko genituzke hala- ko ezagutzak, istripu batean aurrean behar bezala erantzuten jakinez gero bizia salba geneza- keelako", dio ikastaroa egindako Itziar Errastik.

OSOKO BILKURA > HIRIGINTZA PROIEKTUAK

Kurtzebarri eskola handitzeko arauen aldaketa-prozesua hasi du Udalak

Jolasleku aldera 4,80 metro handitzeko asmoa dute sei gela egiteko; aurretik herritarren iritzia jasoko dute herri partaidetza prozesua abian jarrita

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Ohiko osoko bilkura egin zuen astelehenean udalbatzak, eta EAJko zinegotziak izan ezik –ezin etorria agertu zuten– gainerako guztiak elkartu ziren. Zortzi gai zituzten eztabaidatzeko, baina alkateak bilkura hasieran iragarri zuen Arkupe kultura etxearen esleipenaren gainekoa atzeratu egingo zutela. Datorren astelehenean Ama-Lur enpresarekin du bilera –Arkuperen ardura duena orain– eta, han adostutakoaren arabera, urriaren 7an egingo duten ezohiko osoko bilkuran aurkeztuko dute berriro.

INGURUMEN EGOERA AZTERGAI
Ondoren, Tubos lantegia –herriko iparraldean– egondako alderdiaren gaineko bi erabaki onartu zituzten: batetik, ingurumen egoeraren dokumentua. Aldun-

diak hasierako txostena egin du eta bertan jaso ditu: lurraren kutsaduraren garbiketa; industria pabiloiak botatzea; ibai albo-ko landaretza errespetatzea... Eta gero jarraipena egingo diote txostenean jasotako guztia betetzen doazela ziurtatzeko.
Bestetik, Udalak eta Ortubos SL enpresak orain dela bi hilabete inguru sinatutako hitzarmena berretsi egin zuten; hau da, Mondragon Unibertsitateari Vergara, Jauregui, Resusta y Cia izeneko jauregia uztea ikus-entzunezko fakultatea egiteko. Dagoeneko hasita daude lanok egiten, Udalaren baimena jaso duelako.

KURTZEBARRI ESKOLAK SEI GELA
Kurtzebarri eskolari dagokion handitze prozesuaren hasierako onarpena ere egin zuen udalbatzak. Txiki geratu da eskola eta



Kurtzebarri eskolako jolaslekua, eraikina handituko duten aldea.

M.A.

hainbat talde Irabalbarri plazako lokal batzuetara joaten dira. Guztiak batera egon daitezen sei gela berri egin gura ditu Hezkuntza

Sailak eta horretarako 4,80 metro handituko dute oraingo eraikina jolasleku aldera. Horretarako, Hirri Antolaketak Arauen Ele-

mentuen Aldaketari eman diote hasiera, 2012rako eginda egon dadin eta ikasle guztiak eraikin berean.

Jaurlearitzak, gainera, gomen-datu die, herri partaidetza abian jartzeko, aldaketa horien guztien berri emateko herritarrei. Udal ordezkariak egunotan erabakiko dute zein eratako partaidetza prozesua izango den.

Bestalde, EAko zinegotzi Lore Martinezek gogorarazi zuen hitzarmena sinatu zela Hezkuntza Sailarekin Kurtzebarri eskolari lehentasuna emanaz erakin berri bat egiteko orduan, eta horri heldzea komeni dela. Inaxio Garro alkateak hauxe gaineratu zuen: "Delegaritzatik bueltatxo bat ematea komeniko da horren gainean berba egiteko".

% 1,7KO IGOERA TAXIEK
Bukatzeke, datorren urteko taxien tarifak onartu zituzten. Gipuzkoako taxilarien elkarteak % 1,7ko igoera proposatu zuen eta bat etorri ziren horrekin udalbatzako kide guztiak.

XAKEA > DENBORALDI HASIERA

Hasi dira xake eskolak ematen, astelehen guztietan

San Migeletako III. xake txapelketa Eneko Mateos aretxabaletarrak irabazi zuen

M.A. > ARETXABALETA
San Migel jaietan egindako txapelketarekin hasi du denboraldia herriko xake taldeak. 16 urtetik azpiko txapelketa Eneko Mateosek irabazi zuen, bigarre-

na izan zen Danel Seijo eta hirugarrena Jone Triviño.
Era berean, Arlutz taldeko jokalaria Aitor Alcaidek xake eskolak hasi ditu astean; astelehene-tan (18:00-20:00) egongo da zabalik Irabalbarri plazako egoitza. Edozein joan daiteke, baina eskolak hartzeko 9 urtetik gora izatea komeni dela dio irakasleak.
Bestalde, hainbat txapelketa hasiko dituzte laster: urriaren 8an Arrasateko Nazioarteko Irekia eta urriaren 16an Gipuzkoako Absolutua Azkoitian.



Umeak xakean jokatzen San Migel jaietan.

GOIENKARIA

Hesiak apurtuta Arrasatera doan bidegorrian

Hainbat aldiz apurtu dute Arrasatera doan bidegorriaren hesia azken hilabete eta erdian. Hesiaren zutabeak lurrean josita dauden lekutik atera, gurutze formako egurrak ostikoka apurtu... 3.000 bat euroko gastua aurreikusi du Udalak guztia konpontzeko eta San Migel jaiak pasatu zain egon da lan horiek hasteko. Ingurumen Saila kezkatuta dago batzuekako ohitura bihurtu delako pasatzerakoan aurrean dagoen guztia apurtzea.



M.A.

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

Mobiliario
ARENAZA

• ALTZARIAK

• DISEINUA

• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

UDALA > ZAHARREN EGOITZA

Epaiketa dago martitzenean, Aitor Urrutiak jarritako salaketagatik

Kudeatzaile ohiarekin ez negoziatzea, epaiketara joatea eta erantzukizuna "bere gain hartzea" onartu zuen udalbatzak eguazteneko bilkuran

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Berriak daude Mesedeetako Amaren egoitzaren auziaren harira. Joan den maiatzera arte hango kudeatzaile izandako Aitor Urrutiak salaketa jarri du hil honetan egoitzaren kontra, eta martitzenean, urriak 5, horren gaineko epaiketa egingo dute Eibarren, 10:30ean.

Eguazten iluntzean egindako ohiko osoko bilkuran gai horren gainean jardun zuen udalbatzak. Pedro Lasagabaster alkateak gogorarazi zuen aurtengo maiatzean eman ziotela hartzekodunek Udalari (Pedro Lasagabaster alkatea eta Dorleta Lezeta zinegotzia Patronatuko kideak dira) egoi-

tzaren egoera ekonomikoaren berri eta hark, aldi berean, Patronatuari jakinarazi ziola.

357.000 EUROKO ZORRA

Ikerketak egin ostean, Aitor Urrutia kudeatzaile kargutik kentzea erabaki zuen, azken urteotan egindako kudeaketa "txarragatik". Alkatearen arabera, "Urrutiak, gainera, zorrak eta informazioa ezkutatu ditu, eta, gure ustez, gezurretan ibili da. Egoitza egoera larrian utzi du, diru zuloa ikaragarria da. Oraindik 357.000 euroko zorra du Patronatuak".

Egungo egoeraren gaineko datuak eman zituen. Irailean, zorrak 413.00 eurokoak zirela eta,



Zaharren egoitzaren egoera ekonomikoa larria da.

MIRIAN BITERI

laguntzen harira, Diputazioak emandako 189.000 euroekin hartzekodun txikienei 56.000 ordaindu dizkietela esan zuen. Handienekin negoziatzen dabilta, ordainketa atzeratzeko, gaurkotutako zerbitzuen katalogoagatik Diputazioak zor duen dirua jakin arte.

ONDORIOAK BERE GAIN HARTU

Alkateak azaldu zuen Urrutiak salaketa jarri duela kargugabetzea salatzeko eta kalte-ordainak eska-

tzeko. Egindako akatsa "oso larria" delako, Patronatuko udal ordezkari Lasagabasterrek eta Dorleta Lezetak proposamena aurkeztu zioten udalbatzari, Urrutiarekin kaleratzea "ez negoziatzeko", epaiketara joateko, eta horren aurrean, zor daitezkeen ondorioak "bere gain hartzeko". Lasagabasterren esanetan, "epaileak erabaki dezala". EAJ eta H1! taldeak abstenitu egin ziren eta gainerakoek horren alde bozkatu zuten.

Sabina Artatzak 103 urte egin ditu asteen: zorionak!

Asteon urteak bete ditu Eskoriatzako emakume zaharrenak: Sabina Artatzak, hain justu ere. Joan den eguaztenean 103 urte egin zituen eta, 100 urte betetzen dituztenekin egiten ohi den moduan, bisita berezia jaso zuen zaharren egoitzan.

Etxekoez gain, Olazar erretiratuen elkarteko eta Udaleko ordezkariak joan ziren goiz partean Artatza zoriontzera eta, bide batez, lore sorta eta bonboiak oparitzera. Umore onarekin zegoen eskoriatzarra, eta gustu handiz hartu zuen bisita. Egoitzako beste hainbat lagunekin batera abestu egin zioten eta jarraian, ardo goxoa eta pastak dastatu zituzten denok batera.



MIRIAN BITERI

TEKNOLOGIA BERRIAK

Hilaren 6an egongo da tutorea KZgunean

M.B. > ESKORIATZA

Udazkenarekin batera ordutegi berria izango du herriko KZguneak. Hemendik aurrera eguazteneko egongo da Aitor Madrid dinamizatzailea. Hau da, urriaren 6an, 13an, 20an eta 27an izango da datotzen asteotan, ondorengo ordutegian: 09:00etatik 13:00etara.

Ordutegi berriaz gain, orain arte egin ez diren eskainiko dira Udal Liburutegian, hala nola *OpenOffice.org* Draw bektorial grafikoen doako editorea ezagutzeko lau orduko ikastaroa; eta *Gimp* tresnaren bidez, irudien edizioa egiten ikastea. 16 urtetik gorakoek eman ahal izango dute izena ikastaroetan.

oharrak

UMEAK

> **Jaialdia dago gaur ludotekan**
Gaur, egubakoitza, ludotekako jaia izango da Luis Ezeiza ikastetxeko patioan.

KIROLA

> **Asteburuko kirol hitzorduak**
Kirol hitzorduen garaia heldu da osterara ere. Bihar, zapatua, kadete mailako nesken saskibaloia partidua izango da, 16:00etan, Eskoriatza eta Bera Bera Manteo artean; eta 18:00etan, senior mailako nesken partidua egongo da, Eskoriatza eta Bera Bera Gros artean.

GAZTEAK

> **'Street art' ikastaroa etzi**
Gaztelekuko urriko egitarauaren barruan, etzi, domeka, *Street art* ikastaroa izango da, 17:00etan.

JENDARTEA

> **Komunikazioaren gaineko hitzaldia eguaztenean**
Eguaztenean, urriak 8, *Komunikazioa. Zer egin dezaket ingurukoekin harreman hobekitzeko?* izeneko hitzaldia egingo dute kultura etxean. Lahar Elkargoak eskainiko du hori.

KIROLA

> **Ume eta hasiberriendako capoeira ikastaroa**
Senzala Euskadi taldeak ume eta hasiberriendako capoeira ikastaroa antolatu du. Astelehenetan izango dira eskolak, 19:00etatik 19:45era, pilotalekuko gimnasioan. Horren gaineko informazioa gura dutenak: www.senzalaeuskadicapoeira.info webgunean.



Erretiratuak, martitzenean egin zuten tailerrean.

A.E.

ERRETIRATUAK > DEIALDIA

Kontsumo astea amaituta, Errioxara irteera egingo dute

Kontsumo astean parte-hartzea handia izan da; gaur, Donostiara bisita egingo dute erretiratuek

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Kontsumo aste arrakastatsua egin dute asteen herriko erretiratuek. Bada, datozen astei begira ere hainbat ekintza antolatu dituzte erretiratuek.

Urriaren 14an, eguena, Errioxara egingo duten irteera izango da ekintza nagusia. Antzuolatik irtengo dira eta Guardian geratuko dira hamarretakoa eta bisi-

ta turistikoa egiteko. Bazkaria Hotel Marixan egingo dute; eta ondoren, Logroñon pasako dute arratsaldea.

Irteerara joan gura duenak izena eman beharko du urriaren 5ean eta 6an, 16:00etatik 18:00etara, erretiratuen elkartean bertan. Pertsonako 26 euro ordaindu beharko dira izena emateko momentuan.

MERIENDA ETA KINA

Urriaren 12an, 17:00etan merienda eta kina jokoa egingo dute. Merienda doan izango da, baina izena eman beharko da urriaren 5ean eta 6an, 16:00etatik 18:00etara. Bestalde, urriaren 13an, Zumarragako antzerki taldeak ikuskitzuna eskainiko du Torresoroan, 17:00etan. Herriar guztiei zuzendutako antzezlan izango da.

Kontsumo astea amaitzeko, gaur, Donostiako kontsumo gelara bisita egingo dute herriko erretiratuek.

Eskolako aterpea itxura hartzen dabil

Eskolako aterpeko lanak martxa onean doaz. Materialarekin arazoak izan zituzten -Belgikan-, baina dagoeneko iritsi da materiala eta hasi dira aterpeari itxura ematen.

Bi hilabeteko atzerapenarekin dabilta aterpeko lanetan; baina orain, uste dute urri bukaerarako bukatuta egongo dela.



A.E.

AZPIEGITURAK > KIROLA

Eztalan ur-depositu eta galdara berria jarri dituzte

Zazpi mila euroko kostua izan dute ur beroaren arazoa konpontzeko lanek

A.E. > ANTZUOLA

Eztala futbol zelaian hainbat konponketa egin dituzte ur beroarekin zituzten arazoak konpontzeko. Hala, ur-depositu berria jarri dute eta baita galdara berria ere. Zazpi mila euroko kostua izan dute lanek.

"Arazo handia zegoen ur beroarekin, galdara oso zaharra zen eta depositua karez beteta zegoen eta ez zebilen ondo", azaldu du Valen Moñux

aparejadoreak. Sistema berriarekin bermatuta dago kalitatea.

Horiez gain, zelaiko ureztatzeko sistema ere berritu dute: "Aldagelen eraikineren ondoren 10.000 litroko depositua jarri da ureztatzeko sistemarako".

FUTBOL PARTIDUA

Antzuolak etxean jokatu du zapatuan, 16:30ean, Tolosa B-aren aurka. Ligako laugarren jardunaldia izango da.

Antzuolak orain arte bi berdinketa lortu ditu eta partidu bat galdu du. Sailkapeneko 13. tokian daude Garairen mutlak, bi punturekin. Irabazteko grinaz, egongo dira, hortaz.



Eztala futbol zelaia.

GOIENKARIA

KIROLA > IKASTURTE BERRIA

Oraindik aukera dago gimnasioan izena emateko

A.E. > ANTZUOLA

Herriko gimnasioak dagoeneko martxan du 2010-2011 ikasturteko eskaintza. Baina gimnasioko arduradunek adierazi digute oraindik aukera dagoela ikasturte berriko ikastaroetan izena emateko. Ikastaroetan parte hartu gura dutenek edo bazkide txartela egin gura dutenek gimnasioan bertan eman behar dute izena.

Gainera, nahi duenari aukera emango diote izena eman aurretik ikastaroa ezagutzeko.

ASKOTARIKO IKASTAROA

Pilatesa, spinninga, *total fitness*-a, aerobika, gazteendako batuka, umeendako karatea, sasoian egoteko gimnasia eta hirugarren adinekoendako gimnasia izango dira ikastaroak. Iazko eskaintza bera da.

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta
industrialarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32



Korri, Xalto eta Brinko pailazoen emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Untzillan.

ALOÑA AZPIROZ

AUZOAK > JAIK

Untzillan Errosarixoak ospatuko dituzte gaurtik

Gaurko bertso afarian 55 lagun elkartuko dira Peñagarikano eta Egañarekin, Murumendin

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Errosarixo jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Untzillan. Gaur, barikua, hasiko dituzte jaiak, 19:00etan, kanpai jotze eta etxalero jaurtiketarekin. Ohi bezala, Murumendi elkarteko lagunek jardun dute jaiak antolatzen eta gaztetxoei zein nagusiei zuzendutako egitarau txukuna osatu dute. Gaurko bertso afarirako Angel Mari Peñagarikano eta Andoni

Egaña gonbidatu dituzte eta 55 lagun batuko dira afarian.

MUSIKA ETA BOLO TXAPELKETA

Bihar zapatua, Jesus Mari Elexalde abadeak esango du meza 12:00etan eta jarraian trikitilarien saioa izango da. Arratsaldean, berriz, Korri, Xalto eta Brinko pailazoen antzezlana izango da. Euskara tresna nagusi bezala hartuz, Lezoko pertsonaiak

eta istorioak zabaltzeko asmoz lanean hasi ziren hiru pailazoak orain dela 10 urte pasatxo. *Artista bat naiz ni, Kantari* eta *Esketx ederrena* dira haien ikuskizunetako batzuk. Gauean Titau taldearekin dantzaldia izango da eta 23:00etan Murumendi elkartearen 29. bolo txapelketa jokatu da. Sari bikainak izango dira.

Azkenik domekan, Errosarixo egunean, Santa Ageda eta Garagartzako abesbatzek lagun-dutako meza nagusia 12:00etan eta ondoren, ordu bata aldera, bermouth dantzaldia Titaurekin.

NEZAKARITZA > 'BASERRI BARRI'

Kontsumo talde bat sortuko dute herriko baserritarren lana bultzatzeko

E.M. > ARAMAIO

Baserri barri egitasmoaren barruan, kontsumo talde bat sortuko dute Aramaion, bertako baserritarrek harreman zuzena landu eta haien produktuen kontsumoa bultzatzeko. Aitor Larrañaga azkoitiarra ari da *Baserri barri* egitasmo koordinaizale lanetan eta bilera urriaren 14an egingo dute Sastiñan, 19:00etan. Gaiekin interesatutako herritar guztiak daude deituta bilerara. Usurbilgo Usurbiltzen eta Beizama Uztaro kooperatibako ekoizle zein kontsumitzaileek euren esperientziaren berri emango dute. Aramaion ideia zera da: kontsumo taldeko kide bakoitzak hilero kuota finko bat ordaintzea eta trukean base-

rritarrek ekoiztutako produktuekin osatutako saskia jasotzea astero. Elikadura ohiturak berreskuratuz modu osatsuan jateaz gain, bitartekariak saihestu eta nekazaritza babestu nahi dute.



Baserritarren lana babestu nahi da.

> KULTURA

Aramaiori buruzko argazki lehiaketa deitu du Udalak

Argazki lehiaketa deitu du Udalak. Zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak bidali daitezke eta, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiakide bakoitzak. Aramaiorekin zerikusia duten argazkiak izan behar dira eta urtaro bakoitzari dagokion argazki onenak 100 euro jasoko ditu. Irabazle nagusiak, berriz, 200 euro eskuratuko ditu. Lanak urriaren 30era arte jasoko dituzte.

UDALA

Ondasun higiezin gaineke zerga ordaintzeko epea

Ezaugarri Bereziko eta Hiri eta Landa-lur Ondasun Higiezin gaineke zerga ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 20ra arte dago zabalik. Helbideratuta ez dauden erreziboen kasuan, Udalak Vital Kutxan edo Euskadiko Kutxan dituen kontuetan egin daiteke ordainketa. Borondatezko epea amaitu ondoren, Udalak %5eko gainkargua aplikatuko die ordaindu gabeko kuotei.



MERTXE MONDRAGON

Lourdesera erromesaldia

Arabatik Lourdesera egindako erromesaldian Aramaioko 13 lagun izan ziren. Lau autobus atera ziren Gasteiztik eta tartean izan zen argazkiko taldea. Eguenean irten eta domekan itzuli ziren, asteburu ederra igaro ondoren. Gaixoak, haien zaintzaileak eta erromesak batu ziren Lourdesen eta urtero moduan esperientzia aberasgarria gertatu zitzaizela esan digute.



ESPE IRASUEGI

1945ean jaiotako aramaiarren txangoa

1945ean jaiotako aramaiarrek egun osoko irteera egin zuten joan den hilaren 18an. 30 lagun inguru elkartu ziren eta eguzkiak ere lagundu zien Bizkaiko kostaldeaz gozatu ahal izateko. Goizean zehar Urdaibai inguruan ibili ondoren, Arteagako gazteluan bazkari ederra egin zuten (goiko argazkian). Argazkiko gehienek dagoeneko 65 urte bete dituzte eta luzaroan izango dute gogoan aurtan egindako txangoa... Ziur hurrengo laster hasiko direla gertatzen. Bitartean, eutsi osasunari!

ELGETA > UDALA

Patronatuaren egoitzaren etorkizuna erabakitze

Idea lehiaketara aurkeztutako 20 proposamenak Espaloia Kafe Antzokian egongo dira ikusgai gaur arratsaldetik aurrera

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Elgetako udala erabaki garrantzitsu bat hartzeko puntuan dago. Domingo Iturbe patronatuaren eraikinaren ideia lehiaketara aurkeztutako 20 proposamenak Foru Aldundiko zein Arkitektoen Eskolako teknikarien esku egon dira egunotan. Ateratako ondorioak gaur bertan aurkeztuko dituzte udaletxean egitekoa den bilera batean. Besteak beste, proposamen bideragarrienak zeintzuk diren argituko dute bertan. Gero, ondorio horiek guztiak asteleheneko Hirigintza batzordean baloratu



Domingo Iturbe patronatuaren eraikina.

L.Z.

eskubideen gainean Gotzaindegiak aurkezteko duen proposamenaren zain dago Udala.

OSOKOAK EMANDAKOAK
Martitzeneko osoko bilkuran batzordeen berrantolaketa ere onartu zuten. Oxel Erostarbek hartuko du Kiroletako batzor-

dea eta Hezkuntza batzordea eta Jaiak, Kultura eta Euskara batzen dituen Ana Gillegiren esku geratuko dira.

Bestetik, jakinarazi dute ertzainak egunotan hasiko direla ibilgailuendako arautegi berria aplikatzen. Baliteke, beraz, lehenengo isunak ipintzea.

ELGETA > AISIA

Skate parkea gertu dago, eta urrian ipiniko dute bizikletendako gunea San Roke ostean



Asteon ipini dute skate parkea kiroldegiko kantzaren ondoan.

L.Z.

L.Z. > ELGETA
Gazteek kirola egiteko bi azpiegitura berri izango dituzte laster herrian: asteon ipini dute skate parkea eta udal ordezkarien esanetan urrian egingo dute bizikletendako gunea berria San Roke ostean.

BIZIKLETENDAKO ZIRKUITUA
Metro eta erdiko zabalerarekin igoerak eta jaitsierak izango dituen pista egitea da aurreikusten dena. Ertzetan itxitura ipiniko zaio eta erabilera librekoa izango da. Lanon aurrekontua 1.386 euro da.

LEINTZ GATZAGA > ERRETIRATUAK

Irteerako izenematea bukatze

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Nafarroa erdialdera joango dira erretiratuak hurrengo egubakoitzean, hilak 8. Oraindik zabalik dago izena emateko epea baina lehenbailehen jakin gura dute Toki Eder elkarte

Pedro Mari Elkorobarrutia batzordeko ordezkari

ei dei egin diezaietela. Lizarra aldera joango dira erretiratuak: Aiegiko Iratxe hotelean bazkaldu, Lizarran bueltatxo

a egin... Iaz ere antzeko irteera egin zuten, eta egindako harre

ELGETA > ASENTZIO

Bidea erabiltzeko aukera izango dute auzotarrek

L.Z. > ELGETA
Asentzioko bidea dela eta lehen akordio bat egin dute Elgetako Udala eta Angiozar auzoko ordezkari

ek. "Baso ustiapenerako Asentzioko bidea erabiltzeko aukera izango dute auzotarrek", esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Behar den moduan gogortua dagoela esan digute adituek eta behar den moduan erabiltzen bada ez dela hondatuko". Bi aldeek Asentzioko sarreran langa edo erro

mara bat ipintzea adostu dutela azaldu du alkateak, baita erabili ostean erabiltzaileek bidea garbi laga beharko dutela ere. Asentzion aparkatzea debekatu ta dagoela adierazten duen seinalea ipintzea ere adostu dutela esan du Erostarbek.

PAGOPEAREN ERABILERA
Bi aldeek oraingoz adostu ez dutena gunearen beraren erabilera da. Elgetako Udala Angiozar auzoko ordezkari

> LAN GATAZKA

Zabala Hermanosko langileek ez dute oraindik enpresaren egoeraren gaineko informaziorik

Norica Lauronako arduradunek atzeratu egin zuten martitzenerako agindutako bilera eta gaur dira Elgetako langileekin batze

> IKASTAROAK

Astelehenean, hilak 4, hainbat ikastaro egiteko aukera egongo da Elgetako KZgunean

Goizeko ordutegiarekin, 09:00etatik 13:00etara, egongo da tutorea Elgetako KZgunean. Aukeran egongo diren ikastaroak hamaika dira eta 16 urtetik gorako edozein erabiltzailek egin ahalko ditu, doan. Hurrengo bisita hilaren 18an egingo du.

> BIODANTZA

Ikasturteko lehenengo saioa egunean, urriak 7, egingo du Ana Mari Sousak eta doan izango da

Hastear daude Elgetako biodantza eskolak. Eguenean Elgetako Herri Eskolan egingo dute lehenengo saioa, 19:00etatik 21:00etara. Ana Mari Sousak gidatuko ditu eta lehenengo saioa doan izango da dizi

> MUNDUMIRA

Maiatzeko azken aste bukaerara atzeratu dute jaia eta laster osatuko dute batzorde berezia

Hasiera batean ipinitako datak maiatzaren 22a eta 23a baziren ere, Mundumira 2011. urteko maiatzaren azken aste bukaeran egingo da Elgetan. Aldaketa horren arrazoia udal hauteskunde

> LEINTZ GATZAGA

Herriko bazterrak txukunduko ditu Gurelek bihar

Gurel guraso elkarteak deituta herri-inguruak txukuntze

> LEINTZ GATZAGA

Ehiza postuen zozketak egiten hasiko dira gaur

Ehiza denboraldia gainean dago eta gaur, urriak 1, hasiko dira Gatzaga inguruko postuen zozketak egiten. Aurreko urteetan legez, Aretxabaletako Aretz tabernan izango dira zozketok. Hemendik eta hilaren 12a bitartean postuan bakarrik ehizatu ahal izango da; gero hortik kanpo ere bai.



Txomin de Vega jaitsieretako Commencal bizikletarekin saltoa egiten.

GOIENKARIA

MENDIKO BIZIKLETA > EUSKADIKO JAITSIEREN TXAPELKETA

Txomin de Vega: "Helburua podiuma zen, eta lortu dut"

Galdakaoko lasterketaren ondoren Elgetako 'biker'-a bigarren sailkatu da bost proba izan dituen Euskadiko Openean

XABIER URTZELAI > ELGETA

Txomin de Vegak (Elgeta, 1984) asmatu egin zuen futbola alde batera utzi eta bizikletan serio-ago ibiltzea erabaki zuenean: "Lanean hasi nintzenean zailtasunak izaten nituen futbol entrenamenduetara joateko, eta futbola bizikletagatik aldatzea erabaki nuen".

Eta erabaki horri etekina atara berri dio, Bikezona-Commencal taldeko *biker*-ak bigarren postua lortu du-eta Euskadiko Openean: "Hori zen helburua. Aurten lehenengoz egin dute senior mailan Euskadiko Opena eta podiumean sartzea zen helburua. 23 urtez azpikoen kategorian lehenago ere egin zuten horrelako txapelketa bat, eta orduan hirugarren izan nintzen".

Elgetarrak, baina, zalaparta handirik ateratzeko asmo barik, badu zalantzaren bat edo beste: "Zarauzko lasterketan akatsak

egon zirelako puntuak emateko orduan, eta nire ustez lehenengo egon beharko nukeelako, baina bueno, dagoeneko garaikurrak jaso ditugu eta ez dago hori aldatzerik".

LESIO GUTXIAGO

Mendiko bizikletan dabilen jendea jaitsieretan azkar ibiltzen bada, pentsa azkar jaisteko espresuki diseinatutako bizikletan dabilzanak zelan joango diren:



Txomin de Vega.

GOIENKARIA

ESANAK

"Kuriosoa da, baina jaitsieretan nabilenetik futboleant nabilenean baino lesio gutxiago izan ditut"

"Jaitsieretan ibiltzeko bizikleta aproposa behar da, bizikleta gainean teknika izatea, eta bueno, potroak [Barre]"

"Kuriosoa da, baina urte hauetan futboleant nabilenean baino lesio gutxiago izan dut". Azkar jaisteko behar diren gaitasunen gainean ere galdetu diogu: "Hemen ez dago sekretu handirik. Bizikleta aproposa behar da, teknika izatea, eta bueno, potroak [Barre]".

HEMEN ETA KANPOAN

Aste barruan mendiko bizikletarekin ibiltzen da normal, pedalei ematen. "Eta aste bukaeretan jaitsieretako bizikleta hartuta egiten ditut entrenamenduak. Elgeta inguruan badago non ibili, eta kanpora ere asko joaten gara -bizikletan ibiltzeko parkea egitea onartu berri du Udalak".

Hala, Euskal Herrian barrena bakarrik ez, besteak beste Asturiasen eta Segovian ere lehia-tu da: "Frantzia aldera ere joaten gara, Lourdes ingurura. Frantzia maila handiagoa dago, eta baita Katalunian ere". Hala, Euskadiko Opena amaituta, Elgetako garbi dauka lehiatzen jarraitzeko asmoa duela, eta espero du, aurten moduan, talde on baten babesean izatea.

SASKIBALOIA

Muk eta Aloñak kanpoan dute lehena

Lehen nazional mailako denboraldia hasiko dute bi taldeek asteburuan

X.U. > BERGARA

Oraingo asteburuan hasiko dute Aloña Mendik eta Mondragon Unibertsitateak liga txapelketa eta biek jokatu dute kanpoan: Arrasatekoek Donostian jokatu dute zapatuan (20:00) Easo taldearen kontra eta Aloña Mendi-koek Bilbora egingo dute bidaia bihar ere, La Salleren kontra jokatzera (18:20).

Hala, Josu Larreategiren mutilek kategoriari kantxan erakutsitako jokoarekin eusten ahaleginduko dira aurten. Aloña Mendi, berriz, azken bi urteotan birritan igo da kategoriaz, urte ezin hobeak izan dituzte, eta lehenengoz jokatu dute lehenengo nazionala moduan kategoria indartsuan. Hortxe dute erronka, kategoria berriari neurria hartu eta denboraldi txukuna egin nahi dute Xabi Igaratuaren mutilek.

GAINONTZEKOAK ERE LANEAN

Bi talde nagusi horiekin batera, ibarreko gainontzeko saskibaloit taldeek ere asteburuan hasiko dute liga.

ESKUBALOIA

Ford Mugarri eta Bergara, lanera

X.U. > BERGARA

Eskubaloian ere oraingo asteburuan hasiko dute liga denboraldia. Eta gertutik jarraituko ditugu Euskadiko txapelketan lehiatuko diren Ford Mugarri Arrasate eta maila horretara igo berri den Soralue Bergara.

Begarako mutilek Portugaleteren kontra estreinatuko dute kategoria, zapatuan (17:30): "Maila horretako talde klasikoa da Portugalete, beteranoak eta sendoak. Defentsa itogarria egin beharko dugu", adierazi digu Muniategik.

Ford Mugarri Arrasate, berriz, aurrean ibiltzeko fabritetako bat da. Usurbilen jokatu dute zapatuan, 18:00etan.

FUTBOLA > OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaletak eta Bergarak derbia jokatu dute etzi

X.U. > BERGARA

Badator denboraldiko lehenengo derbia: Aretxabaleta eta Bergara zein baino zein gehiago izango dira domekan (16:30, Ibarra futbol zelaia). Barrutiaren mutilak esku hutsik eta kaleratutako jokalaririk itzuli ziren joan den astean Oiartzundik eta Maiztegiaren mutilek ligako lehen hiru

puntuak batu zituzten joan den astean. Sailkapenean, baina, apenas dago alderik: 4 puntu ditu Aretxabaletak eta 3 Bergarak.

Mondrak eta Aloñak herriko jaiak tartean dituztela jokatu beharko dute laugarren jardunaldia, biek ala biek kanpoan. Mondrak Irunen (17:30) eta Aloñak Azkoitian (16:30).



Aretxabaletako jokalariek, aurreko denboraldian, Zamudioren kontra.

GOIENKARIA

MENDIKO BIZIKLETA > BERGARAKO MARTXA

Dena dago gertu domekan Bergarako martxa egiteko

Ziklistendako hitzordua 09:00etan da Agorrosingo kiroldegian

XABIER URTZELAI > BERGARA

Azken asteotan ibilbideko bide bazterrak *garbitzen* ibili ostean, Lokatzako lagunek domekan egingo dute Bergarako mendi bizikleta martxa, Debagoieneko zirkuituko hirugarrena –Eskoriatzakoa urriaren 17an da eta Arrasatekoa urriaren 23an.

Domekan ziklistek 09:00etara ko gertu egon beharko dute Agorrosinen, orduan hasiko dute eta martxa: "Pentsatu dugu jendeari aukera ematea apur bat lehenago edo geroago irteteko. Hala, azkar ibili nahi dutenei inork ez die trabarik egingo eta bidea lasaiago egin nahi dutenek ere ez dute oztoporik izango. Irteera ofiziala, baina, 09:00etan izango da", adierazi digu antolatzaile lanetan dabilen Unai Asurmendik.

> MENDIKO LASTERKETAK

Aritz Kortabarriak Olatzagutia-Urbasako proba irabazi zuen

Arrasateko atleta nagusitu zen, Imanol Goñiren eta Oier Ariznabarretaren aurretik, Euskal Kopako azken lasterketan. Kortabarriak 1.52.29ko denbora egin zuen 23 kilometro eta 1.367 metroko desnibela izan zuen proban.

Hain zuzen ere, Juanjo Igarzabal eta Elena Calvillo izan dira kopako irabazleak.

> ERRUGBIA

Arrasate errugbi taldeak domekan jokatu du Zarautzen kontra

Domeka eguerdian jokatu dute Igor Iasiren mutilek ligako bigarren jardunaldia, Zarautzen kontra (12:00, Mojategi). Egun eta ordu berean, Arrasateko eta Durangoko neskek La Unicaren kontra jokatu dute Durangon. Gazteek eta kadeteek ere Durangon jokatu dute, zapatu arrasaldean, Getxoren kontra.

> ATLETISMOA

Malen Ruiz de Azua eta Izar Gorroño goitia Espainiako txapelketan

Arrasate Atletiko taldeko bi atleta horiek Burgosen lehiatuko dira asteburuan Espainiako txapelketan. Ruiz de Azuak pertika saltoan jardungo du eta Gorroño goitiak salto hirukoitzean.

Bi atleta horiek Bidasoako taldearekin jardungo dute, Arrasate Atletikok Bidasoarendako harrobi lana egiten du-eta.

BI IBILBIDE IZANGO DIRA

Domekan, ibilbide luzeak 30 kilometro (837 metroko desnibela) izango ditu eta motzak 22 kilometro (730 metroko desnibela): "Asen-

tzio aldera igoko gara lehenengo, eta handik Elgetara jaitsi. Lehen-go bide zahar batzuk garbitu ditugu, gero ere erabilgarri egon daitezten, eta uste dugu jaitsiera poli-

tak daudela ibilbidean zehar". Hala, iazkoa baino ibilbide errazagoa egin nahi izan dute: "Proba batzuk geroago eta gogorrago egiten dituzte, baina gehienetan gogortasuna txikitzen dabilta, jende gehiago anima dadin-edo. Ibilbidea Gorla aldera eginez gero desnibel handiak gainditu behar dira, eta horregatik erabaki genuen Asentzio aldera egitea, lasaiago ibiltzeko eta, noski, bide berriak ezagutarazteko".

Martxako argazkiak, mendi bizikletako blogean: www.goiena.net/blogak/debagoienamtb.



Bergarako martxa, iaz

J.A.



LANGILE ETA LANGABETUENTZAT PRESTAKUNTZA

IKASTAROAK %100 DIRUZ LAGUNDUTA

Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotzen zaion katalogo modularra.

MEKANIKA ALORRA

Tornu konbentzionaleko mekanizazioa.	80 or.
Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizazioa.	80 or.
CNC tornuko programazioa. FAGOR 8050/55 T	40 or.
CNC tornuko programazioa. FANUC.	40 or.
CNC fresatzeko makinako programazioa. FAGOR 8050/55 M	46 or.
CNC fresatzeko makinako programazioa. HEIDENHAIN.	46 or.
CNC tornuko programazioa eta exekuzioa. FAGOR 8050/55 T	46 or.
CNC tornuko programazioa eta exekuzioa.. FANUC	40 or.
CNC fresatzeko makinako programazioa eta exekuzioa. HEIDENHAIN	46 or.
CNC fresatzeko makinako programazio eta exekuzioa. FAGOR 8050/55 M	46 or.
CNC sarpen bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa.	30 or.
CNC hari bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa.	30 or.
Abiadura handiko mekanizazioa.	50 or.
CAD. UNIGRAPHICS.	30 or.
CAM. UNIGRAPHICS.	20 or.
3Dko Diseinu Mekanikoa. SOLID WORKS. Modelaketa eta planoak.	30 or.
3Dko Diseinu Mekanikoa. SOLID WORKS. Multzoak.	30 or.
2Dko Marrazketa /irudikapen grafikoa. AUTOCAD.	40 or.
Planoen irakurketa.	50 or.
Saiakuntza Suntsitzaileak eta ez Suntsitzaileak.	40 or.
Elektrodo bidezko Soldadura eta erdiautomatikoak.	55 or.
TIG Soldadura	55 or.
Lan arriskuen prebentzioa. Oinarrizko maila.	40 or.
Tratamendu Termikoak eta Metalografia.	60 or.
Egiaztapen dimentsionala.	40 or.
Hirudimentsioko Egiaztapena. MCOSMOS.	40 or.
Automatismo hidraulikoak.	36 or.
ZUBI-GARABIEN erabilpena.	17 or.
JASOKETA ESKORGEN erabilpena.	23 or.

ELEKTRIZITATE ARLOA

STEP7-300 Automata Programagarriak. Oinarrizko maila.	35 or.
STEP7-300 Automata Programagarriak. Maila aurreratua.	40 or.
Muntaia Domotikoak. I. Maila. Sistema zentralizatuak.	40 or.
Muntaia Domotikoak. II. Maila. BUS EIB.	60 or.
Automatismo elektroteknikoak.	40 or.
Etxebizitzetako instalazio elektrikoak.	60 or.
Megafonia-instalazioen muntaia eta mantenua.	30 or.
Telefonia-interkomunikazio instalazioen muntaia eta mantenua.	30 or.
Antena-instalazioen muntaia eta mantenua.	30 or.
Segurtasun-instalazioen muntaia eta mantenua.	30 or.
Eguzki-instalazio fotoboltaikoen muntaia eta mantenua.	30 or.
Komunikazio Industrialak. PROFIBUS – DP	40 or.
Baimendutako instalatzaile karneta lortzeko ikastaroa.	100 or.

ADMINISTRARITZA ETA INFORMATIKA ARLOA

PYMEen Administrazioa eta Merkaturatzea. AGOPE.	60 or.
Nominak eta Gizarte Segurantza.	60 or.
Kontabilitate-analisia.	85 or.
Aplikazio informatikoak administrazioan.	80 or.
Dokumentu informatikoen elaborazioaren kudeaketa.	75 or.
Textu-tratamendua. WORD.	30 or.
Datu-basea. ACCESS.	30 or.
Kalkulu-orria. EXCEL.	30 or.

Ikastaroen hasiera data izen emateen arabera izango da. Hasiera batean ikastaroak astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:30etara izango dira, kontuan hartuko direla erreleboka lan egiten duten ikasleak.



Informazio gehiagorako edo izena emateko:
IEFPS Miguel Altuna

Ibargarai 1 ¤ 20570 Bergara ¤ Tel.: 943 76 70 49 ¤ Faxa: 943 76 38 41 ¤ email: formakuntza@imaltuna.com



*"Giro alaia,
jende jatorra
eta noski
jantzi dotorea"*



**Amets • Bengoa • Branka • Ederra • Iamai • Itzala
Lora • Monte • Okoretegi • Rumba • Sampry • Txoko**



> DANBAKA

Danbaka lehiaketako 19 talde aukeratuak, zuk 20.a aukera dezazun > 32-33



> KONTZERTUAK

Organo erromantikoaren zikloan parte hartzen du Bergarak aurten ere > 34



> JAIAK

Maritxu Kajoi gaur eta Oñatiko Herri Eguna bihar, zapatua > 34

Karlisten eta liberalen komediak iritsiko dira domekan Elgetara

DISKO AURKEZPENA

Joseba Tapiak 'Eta tira eta tunba' izeneko lana aurkeztuko du

ETZI ARRATSALDEAN

Kontzertua 19:00etan hasiko da Espaloia Kafe Antzokian

MIRIAN BITERI > BERGARA

Joseba Tapia trikitilari eta soinu-jotzaile gipuzkoarra Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango da etzi, domeka, 19:00etan. Orain dela bi aste kaleratutako *Eta tira eta tunba* izeneko lana aurkeztuko du han; Zakurraren Bibolina argitaletxeak duen Katarain estudioetan grabatu du gipuzkoarrak bere bosgarren diskoa. Domekako kontzerturako sarrerak dagoeneko salgai daude; aurrez erosiz gero, 6 eurotan; eta Espaloiko leihatilan hartuta, 8 eurotan.

Tapiak azaldu digu domekako zuzenekoan azken karlistadiaz jardungo duela. Haren esanetan, "trikitiak basea izaten dihardu; horrekin batera, haizezko instrumentuak eramango ditut, eta sei bat lagun izango gara agertoki gainean. Saiatuko naiz tesuinguru hartan jendea kokatzen, giroan sar dadin eta bertsoek zer dioten uler dezan".

ALDE BATEKOAK ZEIN BESTEKOAK

Irailaren 15a ezkerro bailarako musika-dendetan eta Joseba Tapiaren webgunean (www.josebatapia.com) eros daiteke gipuzkoarraren disko berria. Aurrekoan bezala, oraingoan ere gerra garaiko bertsoak jaso ditu horretan; 22 kantuz osatuta dago. Tapiaren arabera: "Mahai gainean nituen proiektuen artean, II. karlistaldiko inguruko bertsoena, alde batekoak eta bestekoak. Oso bertso politak dira, eta horri bete-betean heldu behar niola erabaki nuen". Horrekin batera, azaldu digu dagoeneko argitaratuta dauden liburuetatik hartu dituela bertso horiek.



Haizezko instrumentuek garrantzia izango dute domekako kontzertuan.

ZAKURRAREN BIBOLINA



DISKOA

'Eta tira eta tunba'

> Izenburua:

Eta tira eta tunba.

> Egilea:

Joseba Tapia (Lasarte, 1964).

> Argitaletxea:

Zakurraren Bibolina.

> Kantu: 22.

Gaiari dagokionez, trikitilari ezagunak azaldu du bi taldeen arteko lehia azaltzen dela bertso horietan: "Alde batetik, tradiziozaleak daude, hau da, baserri mundukoak; eta bestetik, gizar-

te hori modernizatu nahi dutenak. Alde biek euskaraz idazten zituzten bertsoak.

Tapiak 1998an ekin zion bakarkako kantagintzari, Xabier Berazaluze Leturiarekin lehenengo eta azken horrekin batera Jexux Aranburu eta Arkaitz Minerrekin geroago ibili ostean. Ordutik hona Euskal Herriko kantutegia batzen eta ikasten ibili da. Garai bateko piezak ikasi ditu banaka zein taldeka; esaterako, Hiru Trukurekin.

EUSKAL HERRIKO HISTORIA

Haren esanetan: "Ohituta gaude garai bateko letrak aztertu eta, gustatuz gero, horiek musikatzera. Euskal Herriaren historia dago tartean". Dena dela, gaineratu du gerra kantuek ez dutela oso ospe onik: "Kantagintza modernoan jendeak ez ditu gerrarekin lotutako bertsoak ekartzen; hala ere, niri kantagarriak eta errekupegarriak direla iruditzen zait; gainera, garai haietan zer gertatu zen ulertzen laguntzen digute".

Joseba Tapia > Trikitilaria

"Garai hartako musika zelakoa izango zen imajinatu behar izan nuen"

M.B. > BERGARA

Ezda lehenengo aldia gerra garaiko kantuak disko batean batzen dituen. 2004. urtean, *Agur Intxorta maite* lana argitaratu zuen. Bi lanen arteko aldeez galdetu diogu.



GOIENKARIA

Agur Intxorta maite diskoan 1936-1937. urteetako gerrako kantuak jaso zenituen. Ze alde dago haren eta oraingo diskoaren artean?

Diferentziak daude. *Agur Intxorta maite* laneko kantuak ahots eta soinu hutsean grabatu nituen. Gonbidatu bat edo beste izan nuen, baina sotiltasuna interesatzen zitzaidan, dramatismo

handiagoa hartzen zuelako. Gainera, orduko gerra gertuago dagoela ematen du, gerra hura pasatako jendeak oraindik bizirik dirau, eta baita mamuek ere.

II. karlistada zelan ikusten da?

Urrunago bezala.

Nahiz eta kale izenetan eta bestelakoetan seinale asko izan, urrun samar geratzen da. Hori dela-eta, garai hartako musika zelakoa izango zen imajinatu behar izan dut, eta haizezko instrumentuei garrantzia ematea pentsatu nuen, garai hartan herriko musika bandek garrantzia izango zutela pentsatuta.

MUSIKA > LEHIAKETA

Epaimahaiak aukeratu ditu Danbakako lehen 19 taldeak

Urriaren 13an prentsurrekoa egingo dute Elgetako Espaloian 20 taldeak aurkeztu eta kontzertuen berri emateko

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Epaimahaiak dagoeneko aukeratu ditu Danbaka IV. musika lehiaketan parte hartuko duten 20 taldeetatik 19; azkena, 20.a, ikusle-

ek aukeratuko dute, Internet bidez. Azkeneko edizioetan bezala, hainbat musika estilotako taldeak aurkeztu dira lehiaketara. Epaimahaiak lan zaila izan

du, baina, haien esanetan, lehiaketara aurkeztu diren 24 taldeetatik "txukunenak" aukeratu dituzte. Orriotan duzue taldeon gaineko informazioa.



ASFIKSIA

Herria: Oñati.
Taldeakideak: Eneko Igartua, Unai Lete, Harriet Aiala eta Jon Kortabarría -haren ordez Andoni Sasigain-.
Noiz hasi ziren: 2006.
Musika estiloa: heavy-rocka.
Hizkuntza: euskara.



DESPREZIO

Herria: Bergara eta Arrasate.
Taldeakideak: Izu, Porru eta Manzana.
Noiz hasi ziren: 2003an.
Musika estiloa: punk-rocka.
Hizkuntza: euskara eta gaztelania.



DOCTORS KLUB

Herria: Abadiño eta Durango.
Taldeakideak: Iraultza, Jonkol, Ehlar, Aritz eta Urtzi.
Noiz hasi ziren: 2008an.
Musika estiloa: rocka.
Hizkuntza: euskara eta ingelesa.



EZ!

Herria: Oñati.
Taldeakideak: Lasa, Mikel, Beñat eta Josu.
Noiz hasi ziren: 2007an.
Musika estiloa: rocka.
Hizkuntza: euskara.



Azkeneko edizioan Mutrikuko The Wet Band taldea izan zen irabazlea.

GOIENKARIA

INTERNET BIDEZ

Ikusleek aukeratuko dute 20. taldea

Bost talderen artean bat aukeratu beharko dute ikusleek. Taldeak dira Aramaioko Deabrutu bateria-jotzailea; Eibarko Kilombo Tribe thrash metal taldea; Eibarko Garrapata punk-rock taldea; Oñatiko Black River hardcore-metal taldea; eta Bergarako Dark Code death metal taldea. Ikusleek Internet bidez eman beharko dute euren botoa, www.danbaka.com webgunean. Atarian bertan egongo da boto sistema. Gaur hasi eta urriaren 5era arte -12:00ak- eman ahal da botoa.

PRENTSAURREKOA LASTER

Urriaren 13an prentsurrekoa egingo dute Elgetako Espaloian 20 taldeak aurkeztu eta kontzertu bakoi-tzean joko duten taldeak aditzera emateko.

Lehenengo kontzertua urriaren 22an izango da, 22:30ean; eta, hurrengoak azaroaren 5ean, 19an, eta 26an eta abenduaren 17an. Finala urtarrilaren 14an izango da.



FRONT MALABAR

Herria: Arrasate.
Taldeakideak: Borja, Josema eta Aitor.
Noiz hasi ziren: 2009an.
Musika estiloa: rock-powera.
Hizkuntza: ingelesa.



INDUSTRIA DOLOR

Herria: Arrasate.
Taldeakideak: Rafa Ferreira eta Patxi Izkue.
Noiz hasi ziren: 1996an.
Musika estiloa: musika industrial.
Hizkuntza: Gaztelera.



KARPOVIAN PROJEKT

Herria: Mutriku.
Taldeakideak: Beñat, Aner, Iker, Iñaki eta Aymar.
Noiz hasi ziren: 2008an.
Musika estiloa: rock-metal progresiboa.
Hizkuntza: euskara.



KUBERS
Herria: Arrasate.
Taldekideak: Monica, Roberto, Daniel, Francisco eta Iker.
Noiz hasi ziren: 2008an.
Musika estiloa: pop-rocka.
Hizkuntza: ingelesa.



SEAFÓID
Herria: Eibar.
Taldekideak: Iñaki, Jorge, Victor, Pau eta Johnny.
Noiz hasi ziren: 2009an.
Musika estiloa: folka, popa eta rocka.
Hizkuntza: ingelesa.



LA-TOX
Herria: Bergara.
Taldekideak: Txus eta Laida.
Noiz hasi ziren: 2010ean.
Musika estiloa: elektronikoa.
Hizkuntza: gaztelania.



EL TRIO CALAVERA
Herria: Oñati.
Taldekideak: Luis, Ekaitz eta Beñat.
Noiz hasi ziren: 2010ean.
Musika estiloa: rumba.
Hizkuntza: gaztelania.



LORD WITCH
Herria: Bergara.
Taldekideak: Jordan, Jorge, Euge, Javi, Iker eta Carlos.
Noiz hasi ziren: 2004an.
Musika estiloa: power metal eta heavy metal melodikoa.
Hizkuntza: gaztelania.



TXUSTERS
Herria: Eibar.
Taldekideak: Jon, Ander, Kepa eta Gorka.
Noiz hasi ziren: 2000n.
Musika estiloa: rock-and-rola.
Hizkuntza: ingelesa.



ROCK PRIVADO
Herria: Donostia-Oñati.
Taldekideak: German, Adriana, Juan Ignacio, Iñigo, Victor eta Andoni.
Noiz hasi ziren: 2007an.
Musika estiloa: pop-rocka.
Hizkuntza: gaztelania.



XARMA
Herria: Ondarroa.
Taldekideak: Josuah, Christian, Itsaso eta Jon.
Noiz hasi ziren: 2007an.
Musika estiloa: rocka.
Hizkuntza: euskara.



ROMBOS NEGROS
Herria: Bergara.
Taldekideak: Nava, Emborujo eta Mikel.
Noiz hasi ziren: 2004an.
Musika estiloa: punk-rocka.
Hizkuntza: gaztelania.



YMOTEK
Herria: Abadiño.
Taldekideak: David, Roberto, Javier, Asier eta Ivan.
Noiz hasi ziren: 2006an.
Musika estiloa: metala.
Hizkuntza: ingelesa.



SCAM
Herria: Aretxabaleta.
Taldekideak: Mikel, Imanol, Paulo eta Ander.
Noiz hasi ziren: 2004an.
Musika estiloa: rocka.
Hizkuntza: euskara.



YOKO OUT
Herria: Durango.
Taldekideak: Alain, Eihar, Gorka, Txitxuflí, Mikel, Joseba, Ander eta Jon.
Noiz hasi ziren: 2009an.
Musika estiloa: rocka, punk oi!-a, punk-and-rola, metala, hardcorea eta bluesa (influentziak).
Hizkuntza: euskara.

BERGARA > MUSIKA

Lau kontzertu egingo dituzte Bergaran organo erromantikoaren zikloan

Bihar hasita, urriko lau zapatuetan (hilaren 2an, 9an, 16an eta 23an) egingo dituzte San Pedro parrokian

Nazioarteko zikloa Donostiako Koldo Mitxelenenan aurkeztu zuten atzo

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Organo erromantikoaren nazioarteko zikloa hasiko da aste bukeran Bergaran, Azkoitian eta Azpeitian. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Azkoitia, Azpeitia eta Bergarako udalen eskutik egingo da bihartik urriaren 23ra bitartean. 12 kontzertu izango dira, guztira; horietatik lau Bergarako San Pedro parrokian. Atzo aurkeztu zuten organo erromantikoaren 11. aldia Donostiako Koldo Mitxelenenan.

Beste urte batez, munduko organista ospetsuenek joko dute San Pedro parrokiako organo erromantikoa; hain justu ere, Ana Gartzia, David Malet, Josep Maria Mas eta Aitor Olea. Bergarako lehen kontzertua bihar egingo dute Ana Gartzia organo-jotzaileak eta Loinatz Abesbatzak. Emanaldia 20:00etan hasiko dute.

Bergarako kontzertuak

Urriak 2

Ana Gartzia (organoarekin)
Loinatz Abesbatza

Urriak 9

David Malet (organoarekin)
Luis Gonzalez (tronpetarekin)

Urriak 16

Josep Maria Mas (organoarekin)
Josep M. Manresa (biolinarekin)

Urriak 23

Aitor Olea (organoarekin)

Kontzertu guztiak San Pedro parrokian izango dira, 20:00etan.

Gaurko saioko egitaraua

Suite Gothique

Leon Böellmn (1862-1897)
Organoa.

Juan XXIII.a aita santuaren meza

Tomas Garbizu
> *Introito* (organoa).
> *Kyrie* (organoa eta abesbatza).
> *Gloria* (organoa eta abesbatza).
> *Credo* (organoa eta abesbatza).
> *Priere a Notre Dame* (organoa).
> *Sanctus* (organoa eta abesbatza).
> *Benedictus* (organoa eta abesbatza).
> *Agnus Dei* (organoa eta abesbatza).
> *Toccata* (organoa).



Aitor Olea, San Pedroko organoa jotzeko gertu; urriaren 23an kontzertua egingo du Bergaran.

AITOR OLEA

BERRITZE LANAK ATZERATUTA

Aurrez pentsatu ez bezala, organo erromantikoaren zikloak lekua izango du Bergaran; izan ere, iazko emanaldiak bukatu orduko aurreratu zuten 2010ean ez zela kontzerturik egingo San Pedro elizan. Parrokia zaharberritzeko prozesuan zegoela aprobetxatuz, organoa ere berritu egingo zutela aurreratu zuten.

Baina organo kontzertuak egongo dira Bergaran. Maider Osa Kultura teknikariak eman digu arrazoia: "Parrokiako lanak atzeratuta daude, eta, ondorioz, organoa berritzeko lanak ere bai. Ikusi genuen posible zela kontzertua San Pedron egitea. Herritarren erantzuna oso ona da eta aurren ere aukera izango dute organo-jotzaile onenak entzuteko".

BUKATZEKO, AITOR OLEA

Bergarako zikloa Aitor Oleak bukatuko du urriaren 23an. Durangon jaio zen, baina Arrasaten hasi zen musika ikasten. Lea-Artibaiko nazioarteko organo jaialdiaren sortzailea izan zen. Gaur egun, Bergarako organo eskolako irakaslea da eta San Pedro parrokiako organo-jotzaile titularra.

OÑATI > JAIK

Errosaixo jaiak ospatuko dituzte oñatiarrek gaurtik astelehenera arte

Iturriagak, Lujanbiok, Lizasok, Amuritzak, Maiak eta Artzallusek bertso saioa egingo dute gaur

M.B. > OÑATI

Atsedean barik, San Migelak bukatuta, Errosaixo jaiak ospatuko dituzte oñatiarrek gaurtik astelehenera arte. Bertso jaialdiarekin hasiko dituzte jaiak eta moztarrotean bukatuko dituzte. Tartean, Herri Eguna ospatuko dute bihar. Herriko txoko ezberdinetan egingo duten egun osoko jaiak izango da.

HASTEKO, BERTSOAK

Bertso jaialdia egingo dute gaur Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan, 22:30ean. Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Miren Amuritz, Amets Artzallus eta Jon Maia igoko dira

oholtzara. Txartelak saioa hasi aurretik jarriko dituzte salgai sarreran.

Bestelako musika nahiago duenak txosnagunean du aukera: Klabo Oxidado, Nos la Suda, Annukaki Revenge eta Karkaba taldeek kontzertua egingo dute, 21:30ean.

FESTA KALERA

Aste bukerako egun handiena bihar ospatuko dute: Herri Eguna. Hiru gune nagusi izango ditu biharko festak: alde batetik, unibertsitate aurrean erakusketak, lehiaketak eta artisau azoka egingo dituzte, 10:30ean; beste alde batetik, sagardo dastatzea egin-



Aizkolariek saioa egingo dute bihar Foruen plazan.

GOIENKARIA

go dute Herriko Plazan, 12:00etan, eta herri kirolen jaialdia, 18:00etan; azkenik, kiroldegian herri bazkaria egingo dute, 14:30ean. 1.000 bat lagun elkartzeko dira mahaia bueltan. Gainera, Trikitake taldeak erromeria egingo du plazan, 20:30ean eta 23:00etan.

Domekan, askotariko ekitaldiak egingo dituzte: besteak bes-

te, haurrendako eta gaztetxoendako parkea, musika bandaren kontzertua eta balkoitik balkoirako bertso saioa Julio Soto eta Iñigo Mantzisidor *Mantxi* bertsolariarekin.

Bestalde, Juan Martinez de Irujo pilotaria zuzenean ikusteko aukera izango dute zaleek: profesional mailako pilota partiduak 17:00etan hasiko dituzte.

ARRASATE

Maritxuren mirariaren zain hasiko dute festa

M.B. > ARRASATE

Egun handia dute gaur Arrasaten: Maritxu Kajoi. Egun osorako egitaraua prestatu dute: 08:00etan hasiko dute festa etxafuego jaurtiketarekin. Baina, duda barik, eguneko une garrantzitsuenetarikoa miraria izango da (20:30). Herritarrek ikusmin handiarekin egongo dira Maritxuren mirariaren zain. Lore eskaintza egingo diote, eta bertsoak eskaini.

Bada, momentu horren aurretik eta ondoren, festarako tarte egongo da. Trikitilariak, Arrasateko konpartsa txikiak, Dragoialde txarangak eta TX eta Luhartz taldeek kaleak girotuko dituzte.




GOIENKARIA

Oñatiko San Migel jaien errepaso zabala

Zapatuko Herri Egunean eta asteleheneko Errosaixo Bixamon egunean Oñatin gertatutakoen berri emango digu Txomin Madinak. San Migel jaien errepasoa izango da, beraz, astelehenean, *Goiena* magazinea-n.

GOITB, 'Goiena magazine'
> Astelehena, 19:45



GIPUZKOAKULTURA.NET

Haur eta gaztetxoendako saio berriak

Urritik aurrera Goiena Telebistak haur eta gazte-txoendako programazio eskaintza zabalduko du. Izan ere, Kantari karaoke ikuskizunaz gain, marrazki bizidun berriak eta *Ipupomamua* saioa ere eskainiko dira etxeko txikienendako.

GOITB, 'Ipupomamua'
> Eguena, 20:45

astea GOITBn

Egubakoitza, 1	Zapatua, 2	Domeka, 3	Astelehena, 4	Martitzena, 5	Eguaztena, 6	Eguena, 7
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Barrebusa.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.	10:30 Barrebusa.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 Onein.	11:30 28 Klip.	11:30 Sukalki Gernika.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Onein.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	12:00 Erloklip	12:30 Goiena Magazinea	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Ur eta lur.	12:30 Goiena Magazinea.	tertulia.	15:15 Erloklip.	15:10 Harmailatik.	15:10 Iragana gogoratuz.	15:15 Gipuzkoa kultura.
15:45 Erloklip.	13:30 Eltze beroa.	13:30 Ur eta lur.	15:45 Ikusmira.	15:50 Sukalki Gernika.	15:50 Onein.	15:45 Goiena Magazinea,
16:15 Herriz-herri:	14:00 Animalia.	14:00 Onein.	16:15 28 Klip.	16:20 Erloklip.	16:20 28 Klip.	tertulia.
Elgorriaga.	14:30 Barrebusa.	14:30 Goiena Magazinea.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
16:45 Berriak.	17:45 Eskuokin.	15:30 Gipuzkoa Kultura.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
17:15 Marrazki bizidunak.	18:00 Ur eta lur.	16:00 Marrazki bizidunak.	17:45 28 Klik.	17:35 Herriz-herri:	17:35 Harmailatik.	17:45 Onein.
18:00 Harmailatik.	18:30 Gipuzkoa Kultura.	18:00 Eskuokin.	18:15 Marrazki bizidunak.	Elgorriaga.	18:15 Marrazki bizidunak.	18:15 Marrazkibizidunak.
18:45 Berriak.	19:00 Herriz-herri:	18:15 Barrebusa.	18:45 Berriak.	18:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.
19:15 Kantari.	Elorriaga.	19:15 Goiena Magazinea	19:15 Kantari.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.
19:45 Goiena Magazinea.	19:30 Animalia.	tertulia.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Kantari.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Kantari.
20:45 Gipuzkoa kultura.	20:00 Goiena Magazinea.	20:15 Harmailatik.	20:45 Harmailatik.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Iragana gogoratuz.	19:45 Goiena Magazinea.
21:15 Goiena Magazinea.	21:00 Ikusmira.	20:45 Goiena Magazinea.	21:30 Goiena Magazinea.	20:45 Harmailatik.	21:15 Goiena Magazinea.	20:45 Ipupomamua.
22:15 Sukalki Gernika.	21:45 Goiena Magazinea	21:45 Gipuzkoa Kultura.	22:30 Harmailatik.	21:30 Goiena Magazinea.	22:15 Goiena Magazinea	21:15 Goiena Magazinea.
22:45 Bermioko	tertulia.	22:15 Animalia.	23:00 Harmailatik.	22:30 Iragana gogoratuz.	tertulia.	22:15 Gipuzkoakultura.
danborrada.	22:45 Gipuzkoa kultura.	23:00 Kulturzulo.	23:00 Gipuzkoakultura.	23:00 28 Klip.	23:15 Goiena Magazinea	22:45 Esatea libre.
23:45 Goiena Magazinea.	23:15 Harmailatik.	23:15 Jazz jaialdia	23:30 Goiena Magazinea.	23:00 28 Klip.	00:15 Jazz jaialdia.	23:45 Goiena Magazinea.
00:15 28 Klip.	00:15 28 Klip.	23:45 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.	00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.
00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.			00:30 Emisio amaiera.		

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo Autobusera!
> Albistegia
> Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
> Astelehenetan Kirolak
> Enekoren tartea
> Udal Gazte Bulegoa
> Sexologia Zerbitzua
> Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
> Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
> Zozketak (egubakoitzean)
> Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* edo *goiena.net* atarian, irratiko bloga))
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Musika
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 22:00: Errepikapenak

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 2	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39
Domeka, 3	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Astelehena, 4	Español	Araba 14	943 79 18 65
Martitzena, 5	Ruiz	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Eguaztena, 6	Etxeberria	Zarugalde 42	943 77 16 30
Eguena, 7	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Egubakoitza, 8	M. Fca. Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99

BERGARA

Zapatua, 2	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Domeka, 3	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Astelehena, 4	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Martitzena, 5	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguaztena, 6	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguena, 7	Urritikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 8	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87

OÑATI

Zapatua, 2	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Domeka, 3	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 4	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Martitzena, 5	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 6	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 7	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 8	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

ARETXABALETA - ESKORIATZA

Zapatua, 2	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 3	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 4	Agirre	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Martitzena, 5	Agirre	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Eguaztena, 6	Agirre	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Eguena, 7	Agirre	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Egubakoitza, 8	Agirre	Gorosarri Plaza	943 71 48 28

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

herritarrak galdezka

OÑARGIREN LEKUALDATZEA

"Oñargi Oñatiko argindar zerbitzua orain arte udaletxean egon da, baina lekuz aldatuko dela entzun dut; nora doaz?", galdetzen digu oñatiar batek.

Bidebarrieta kaleko 24ra eroango dute. Argentinako elkartasun taldeak materiala batzen duen lokalaren ondoan jarriko dute egoitza berria. Datozen egunotan lekualdatzea egingo dute eta urriaren 13an hasiko dira Bidebarrietan zerbitzua ematen.

Herritarrendako arreta zerbitzua egunero emango dute, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara. Telefono zenbakia berbera izango da: 943 78 07 08.

MONDRA TABERNA

Arrasatear baten kezka iritsi zaigu: "Mondra tabernan eman-gotuzte bazkariak eta afariak?".

Mondra tabernan, edariez gain, ogitartekoak, pintxoak eta arrazioak emango dituzte. Mondra tabernak ateak ireki zituenetik zortzi egun pasa dira, eta oraingoz, behintzat, horrela hasi dira. Gerora, tabernan dagoen mugimenduaren arabera ikusiko dute horrela jarraitu edo zerbait aldatu behar duten.

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagiokionari.

• Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12

• Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.

• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 2

Zeruan hodeiak eta urdinguneak tartekatuko dira; hala ere, ez dute euririk ekarriko. Haizeak hegoaldetik joko du, baina indar handirik gabe.



Domeka, 3

Tenperaturak behera egingo du eta ez dugu eguzkirik izango. Egun hodeitsua izango da eta, horrez gain, prezipitazioak egongo dira egun osoan.

EUSKAL HERRIAN

Bihar, zapatua, hodeiak eta urdinguneak tartekatuko dira. Tenperaturak, baina, gora egingo du. Domekan, okerrera egingo du. Hego haizeak euria ekarriko du.





Antonio Martinez eta **Catalina Granada** bergararrak urrezko ezteiak ospatuko dituzte bihar, zapatua, Arantzazun. Bikotea Jaenen ezkondu zen 1960. urtean. Familiak honako mezua helarazi nahi izan die: "Zorionak eta zoriontsu izaten jarraitu".



Cipriano Guezmes eta **Tere Elortondo** arrasatearrak 1960ko irailaren 29an ezkondu ziren. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak eta patxo handia, bikote, seme-alaba, biloba eta etxeko guztion partetik!



hildakoak

- **Maria del Carmen Villena Goienetxea.** Aretxabaletan, hilaren 24an. 94 urte.
- **Jaime Rodriguez Garcia.** Bergaran, irailaren 24an. 74 urte.
- **Justa Arantzabal Arantzabal.** Bergaran, irailaren 26an. 94 urte.
- **Joxe Diaz de Gereñu Luzuriaga.** Bergaran, irailaren 28an. 83 urte.
- **Juan Maria Azkoitia Arrizabalaga.** Oñatin, irailaren 28an. 61 urte.
- **Pedro Mari Goikolea Eskibel.** Eskoriatzan, irailaren 28an. 78 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera.

Eskelaren prezioa: 122.50 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **163 euro.**

GOIENKARIA: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.



Aretxabaletako **Izaskun Lezeta** eta Ordiziako **Iñaki Lizaso** bihar ezkonduko dira Apotzagako elizan. Jarraian, bazkaria Lasa jate-txean egingo dute. Zorionak, bikote, familia eta lagun guztion partetik. Ederto ibili bai ezkontzan eta baita eztei-bidaian ere!



Saioa Villar eta **Igor Altuna** aretxabaletarrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Leintz Gatzagako udaletxean. Ondo pasatu eguna eta disfrutatu Tanzaniako bidaian. Pantxo handi bat familiakoen partetik!



Olaia Bouzas bergararra eta **Iker Aldabaldetrekua** mutrikuarra bihar ezkonduko dira Bergarako Mariaren Lagundian; gero, Zarauzko Aiala jatetxean bazkalduko dute. Lagun eta familiakoen partetik, ondo pasatu eguna eta ondo ibili Fasipako espedizioan eta Vietnamen!



Antzuolako **Sergio Sanchez** eta **Iala Rolle** irailaren 25ean ezkondu ziren Antzuolako udaletxean. Familiaren eta zuen ile-apaintzaile eta haren gizonaren partetik, zorionak, bikote! Muxuak eta ondo ibili eztei-bidaian!

URTEURRENA

Martina Sagasta Agirre

Timoteo Etxaberen alarguna

2009ko irailaren 28an hil zen, 84 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 3an, 12:00etan, Arantzazuko Amaren basilikan ospatuko da.

*Beti gogoan zaitugun ama izarra dirudizuna.
Eguzkiaren beharrik gabe argi egiten duzuna;
berdin gabeko amodioa sentiarazten gaituzuna.
Aditzera ezin eman liteke dizugun maitetasuna.*



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Juan Mari Oregi Arregi

EPA-HHI Arrasateko ikaslea

Arrasaten hil zen 2010eko irailaren 22an, 72 urte zituela.

*Eskerririk asko zure alaitasuna,
umorea eta jakingura
eskolara ekartzeagatik.*



HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA (H.H.I.)
EDUCACION DE PERSONAS ADULTAS (E.P.A.)



EPA-HHI Helduen Eskolako irakasle eta ikasleak.
Arrasaten, 2010eko urriaren 1ean.

ESKER ONA

Justa Aranzabal Aranzabal

Eustaquio Aldayren alarguna

Hilbeilara edo irailaren 27an agur-elizkizunera azalduta, edo beste era batera emandako babes eta elkarasunari esker, eraman errezagok egin zaizkigu egun zail hauek. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko guztioi seme-alaba, biloba, birloba eta gainontzeko ahaideen izenean.

Gure bihotzeko txorrik ederrenean beti.

Bere aldeko meza domekan, urriaren 3an, 11:00etan, Angiozarko parrokian ospatuko da.



Angiozarren, 2010eko urriaren 1ean.

Babeslea:



Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net



ESKER ONA

Maria Lourdes Uriarte Saldias

Angel Osinaga Muruaren alarguna

Oñatin zendu zen 2010eko irailaren 14an, 91 urte zituela.

Osinaga Uriarte sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu gure sentimenduekin bat egin duzuen guztiei.



Oñatin, 2010eko urriaren 1ean.

Urriak 1-7

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.

Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Jaia



ARRASATE

> Dotore janzteko eta Maritxu Kajoiaren omenez jai egiteko gaua

Gaur da Maritxu Kajoi eguna (egubakoitza). Arrasatear askok eguerdian hasiko dute ospakizuna eta inguruko bisitariak gauean joango dira. Maritzuri lore eskaintza egin eta miraria ikusi eta gero hasiko da jaia.

Musika



BERGARA

> Garbizuren meza ekumenikoa, Organo Erromantikoaren XI. Zikloa hasteko

Nazioarteko Organo Erromantikoaren XI. Zikloaren barruan, lau kontzertu izango dira San Pedron; lehenengoa bihar, zapatua (20:00): Garbizuren meza ekumenikoa Beasaingo Loinaz abesbatzarekin, Koro Saenz organo-jotzailearekin.

Jaia



ARAMAIO

> Afaria, Murumendiko bolo txapelketa eta bermut dantza Untzillan

Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte Untzillako jaiak, auzo afariarekin (21:00) eta Peñagarikano eta Egañaren bertso saioarekin. Biher, meza, antzerkia, dantzaldia eta bolo txapelketa izango dira eta etzi, meza eta bermut dantza.

ikastaroa emango du Ilunpetan argazki taldeak, Udal Kultura sailaren laguntzarekin. Lau zapatutan izango da –urriaren 23a eta 30a, eta azaroaren 6a eta 13a–, 10:00etatik 14:00etara.

Informazioa eta izenematea, honako helbidean: ilunpetan@gmail.com.

Hitzaldiak

ARETXABALETA

> '¿Te conviene el deporte que practicas?' delako hitzaldia

Ane Remedios eta Ane Coranti fisioterapeutek *¿Te conviene el deporte que practicas?* delako hitzaldia egingo dute.

Hilaren 7an, eguna, Arkupe kultur etxean, 19:00etan.

BERGARA

> 'Crecimiento personal' delako hitzaldia egingo dute

Crecimiento personal: conocerse y aceptarse para crecer como persona delako hitzaldia egingo du Silvia Camio psikologoak, Nagusilane eta Bizikasik antolatuta.

Hilaren 5ean, martitzena, Miguel Altunan, 17:30ean.

Erakusketak

BERGARA

> Beart elkarteko ikasleen margo erakusketa

Beart elkarteko Rikardo Azkargortarekin margo ikasketak egin dituztenek

Musika

ELGETA

> 'Eta tira eta tunba' diskoko abestiak joko ditu Tapiak

Joseba Tapiak *Eta tira eta tunba* delako diskoko abestiak joko ditu Espaloian. Azken karlistaldian karlistek eta liberalek kantatzen zituzten abestiak dira; batzuetan alaiak, beste batzuetan tristeak, eta beti hunkigarriak.

Etzi, domeka, Espaloia antzokian, 19:00etan.

Ikastaroak

ARETXABALETA

> Erritmo eta dantza tailerra emango du Jaiki elkarteak

Funka, erritmo afroamerikarrak, hip-hop, afroa eta beste estilo batzuk erakutsiko ditu Magdalena Milano irakasleak erritmo eta dantza tailerrean, Jaiki elkartearen eskutik. Martitzenetan 18:30etik 20:00etara izango da, urriaren 5ean hasi eta Gabonak arte, kuartel zaharrean. Prezioak honakoak dira: 25

euro langabeek eta 35 euro langileek.

Izena emateko: 943 53 43 96 edo jaikielkartea@yahoo.es.

ARRASATE

> Euskalki ikastaroa emango dute euskaltegiak eta AEDk

Arrasateko euskara ikasteko tailerra emango du Udal Euskaltegiak, AEDk antolatuta. 20 ordu izango dira eta izenematea zabalik dago urriaren 10era arte. Matrikula 55 euro da, 50 AEDko bazkideendako.

Argibideak, AED elkartearen.

BERGARA

> Plazako dantzak erakutsiko ditu Patxi Monterok

Jardunekin elkarlanean, plazako dantzen ikastaroa emango du Patxi Monterok. Urrian hasten da ikastaroa. Bi txanda daude: hasiberriak (19:30-20:30) eta jarraitu nahi dutenak (20:30-21:30).

Izenematea: 943 76 36 61.

OÑATI

> 'Argazkien estetika eta irudien azterketa' delako ikastaroa

Argazkien estetika eta irudien azterketa delako

Antzerkia

BERGARA

> 'Zer duzu negarrez, Marie?' delako antzezlan

Marie de Jongh taldeak umeei zuzendutako *Zer duzu negarrez, Marie?* delako antzezlan egingo du. Sarrera 3 euro da.

Bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan, 17:00etan.

Lehiaketak

ARAMAIO

> Aramaioaren gaineko argazki lehiaketa deitu dute

Aramaio herriarekin zerikusia duten argazkien lehiaketa deitu du Udalak. Gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu norberak, betiere argitaratu bakoak eta inoiz saritu bakoak. Koloreta-koak nahiz zuri-beltzekoak izan daitezke; gutxienezko neurriak 18x24 cm izan behar du.

Sari nagusia 200 euro izango da eta 100 euroko beste lau emango dituzte: neguko, udaberriko, udako eta udazkeneko argazki onenak.

Urriaren 30a baino lehen entregatu lanak, udaletxean edo kultura etxean.

PROPOSAMENA



OÑATI

> San Migeletako bi zita garrantzitsu daude aste bukaeran: Herri Eguna eta Errosaio eguna

Oñatiko jaien azken egunak indartsu datoz. Biher, Herri Eguna ospatuko dute, ganadu, gazta, fruta, barazki, artisau, lore eta landare erakusketa eta lehiaketekin, 24. sagardodastatzearekin (12:00) eta txosnetako kontzertuekin (21:00); etzi, berriz, Errosaio eguna: besteak beste, txosnetako tortilla txapelketa (17:00), Hortzmugaren kale-antzerkia (18:00) eta balkoitik balkoirako bertso saioa (20:00) izango dira.

Herri eguneko azoka 10:30ean irekiko dute, ubirbirsitate inguruan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

SIMULAGAILUA HANDITU DUGU

Errusiar mendiaren simulagailua handitu egin dugu lau eserlekuko plataforma berri batekin. Gainera, bidaierietako batek joystick baten bidez mugimenduak zuzendu ahal izango ditu. Filma berriak ikusteko aukera ere izango duzu bertan.



Informazio gehiago: www.miramón.org edota 943 01 24 78



Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

Ordutegia
Astelehena ixita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

Bi metro pasatxo dituen berokia

ARETXABALETARRA Saioa Tejeiro diseinatzailearen arropa jantzi du astebetetz 'El Caminante' estatuak

AUKERA APARTA Haren lana hedabide askotan agertu dela-eta pozik dago diseinatzailea

ARRITXU BARRUSO > ARETXABALETA
Saioa Tejeiro diseinatzaile aretxabaletarrek bezero berezia izan du: Gasteizko *El Caminante* estatua famatua. Hiru metro pasatxo neurtzen duen estatuarendako arropa diseinatu behar izan du. Horixe izan da Gasteizko Moda Alava eta Unimoda elkarteek bulztatutako lehiaketa irabazita lortu duen saria: "Diseinatzaile gazteei laguntzeko sortutako lehiaketa da, gure lana ezagutzera ematen laguntzeko. *El Caminante*-rendako diseinuak aurkeztu behar dira eta ondoren irabazlearen diseinua jartzen zaio astebetetz estatuari", azaldu digu aretxabaletarrek.

LEHENENGOAN, SARIA

Tejeioren lehiaketa horretan parte hartzen duen lehenengo aldia izan da eta estreinako aldia iza-

teko ez zaio batere txarto joan: "Oso pozik nago. Lehiaketara aurkeztu nintzenean ez nuen horrelakorik espero. Esperientzia oso polita izan da eta diseinatzaileen munduan hasten ari garenondako sekulako aukera da". Irailaren 20tik 24ra araman zituen *El Caminante*-k Tejeioren jantziak eta telebista, irrati eta egunkari askotan agertu da: "Hedabideetan oihartzun handia izaten du kontu honek eta hori oso positiboa da niretako; leku askotan agertu da albistea".

XXXXL TAMAINAKO ARROPA

Larruzko beroki beltza eta bufanda gorria diseinatu zituen Tejeioren Gasteizko estatuarendako. Sekula egin duen eta egingo duen berokirik handiena izango da, seguruena: "Estatuak berak hiru metro baino gehiago neurtzen

du eta egin diodan berokiak bi metro pasatxo. Ez da batere lan erraza izan. Toki handia behar nuen eta lurrean ibili behar izan dut josten". Eta berokia eta bufanda zergatik? Zerbait ezberdina egiteagatik: "Interneten ikusi nituen aurreko urteetako diseinuak eta gehienak praka motzak eta beso bako kamisetak ziren, guztiak ere jantzi oso zabalak. Zerbait desberdina egin nahi nuen eta uste dut lortu dudala.

POLIKI-POLIKI TOKIA EGITEN

Tejeioren esan digu diseinatzaileen mundua zaila dela, baina pozik dagoela poliki-poliki proiektuak irteten ari zaizkiolako. Enkargu bidez egiten ditu jantziak eta Interneten ere ikus daitezke diseinatzaile aretxabaletarren arropak (www.saioa-tejeiro.jimdo.com).



'EL CAMINANTE' Saioa Tejeiro diseinatzailearen berokia jantzi du estatuak.

s.t.

ahobero

"Felazio gabeko %20ko edo %25eko inbertsio fondoak ikusten ditudanean..."

Rachida Dati > Frantziako Justizia ministro ohia

Aste honetako esaldia da, zalanza barik. Frantziako Justizia ministro ohiak *inflazio* esan beharrean *felazio* esan zuen telebista kate batean, zuzenean egin zioten elkarriketa batean. Politikariak nahiko aspergarriak izaten dira; eskerrak horrelakoekin barrea eragiten diguten.

iturri onetik

'TU Lankide'-ren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldi berezia eguaztenean Garaian

Jose Maria Arizmendiarretak 1960an *Cooperación* izenarekin sortutako aldizkariak 50 urte bete ditu aurtan. 1964an *Trabajo y Unión (TU)* izena hartu zuen eta 1977an gaur egungo *TU Lankide* bihurtu zen. 50. urteurrena ospatzeko ale berezia prestatu dute. Horrez gain, ekitaldi berezia egingo dute datorren eguaztenean MUko Goi Eskola Politeknikoak Garaia Berrikuntza Gunean duen egoitzan.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Partal

Hamburgoko udal web-a katalanez ere badago. Eta lan hori ez du inongo hamburgarrak egin, Google-ek baino. Zergatik? Katalana barru dagoelako munduko 40 cyber-hizkuntzetan. Eta hori nola? Bada, inteligentzia handia erabiliz eta indarra metatuz.

Vicent Partal-ek azaldu digu asteen hori eta antzeko kontu ugari, Miramonen Aldundiak antolatutako Gipuzkoa 2.0 ekitaldian. Internetek nola aldatu duen hizkuntzen mapa: ingelesa bakarrik da mundukoa, bigarren multzoan daude batera Google-eko 40ak, eta ondoren beste guztiak. Teknologikoki hizkuntzarik prestatuena islandiarra da, euskara baino txikiagoa eta bihurriagoa. Neurriak ez du ezer erabakitzen, eraginkorrak egiten du aurrera. Aukeraz betetako bidea ireki zaigu hor, izan dezagun abildadea.

ai, ene!



Argi dago garaia aldatu egin direla komunean ere

Garai batean komiki bat edo liburua hartuta joaten zen bat komunera. Antza, ordenagailu eramangarriak hartu die lekua.

www.forodefotos.com

Ukabi
informatika

Enpresa kudeaketa aplikazioak

Era guztietako webguneen diseinua

Etixerako eta enpresetarako salmenta

Domingo Irala z/g
(Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



Eskaintza eskusiboa

Prezio hauekin, edonork izan dezake eskuko ordenagailua!

Lenovo G550 eramangarria

- Teknologia: Intel Pentium Dual Core T4400, 2.20ghz
- RAM: 4 GB
- Pantaila: 15,6 hazbeteko LED pantaila.
- Disko gogorra: 320 GB
- Integratutako webcamera: Bai
- Sistema eragilea: Windows 7 Home Premium
- DVD RW

... eta ehunka produktu eta eskaintza aurkituko dituzu gurean.